

**Bizitza, lurra, lurraldea eta naturadefendatzea eta zaintzea.**

An illustration showing a variety of feet of different colors (red, pink, black, purple, brown) and styles (bare, sandals, socks) arranged in a circle. The feet are pointing towards the center where the text is located. The background is a light beige color.

# Herri Utopiak Ehuntzen

Emakume\* defendatzaile eta aktibistak.

**Abya Yalako, Afrikako eta Euskal Herriko  
hainbat lurraldetako emakume defendatzaile eta aktibistak.**

## **Herri Utopiak Ehuntzen**

Bizitza, lurra, lurraldea eta natura defendatzea eta zaintzea.

Abya Yalako, Afrikako eta Euskal Herriko hainbat lurraldetako emakume\* defendatzaile eta aktibistak.

Koordinatzailea: Nazioarteko Bake Brigadak – Espainiako Estatuak (PBI-EE).

**Hazi- eta ideia-biltzaileak, hitz- eta sentimendu-iruleak:** Sara Álvarez Medrano eta Mar Garrote.

**Uzta-berrikuseak:** Miriam García Torres eta Amanda Asenjo.

**Itzultzailea:** Ibai Sarasua García .

**Diseinatzaile eta ilustratzailea:** [Torontile](#).

Euskal Herria, 2025.

**Gure eskerrik beroena eta aitortza guztia talde, erakunde eta mugimenduetan antolatutako emakume aktibista eta defendatzaile guztiei; ereite-lan hau elikatu duten guztiei; hitzak landu bitartean eztabaidetan, hausnarketetan eta elkarrizketan parte hartu eta ekarpena egin dutenei.**

**Informazio gehiago webgunean:** <https://pbi-ee.org/es>.

Argitalpen hau eta beste dokumentu osagarri batzuk sarean doan deskargatzeko.

Lan honek Creative Commons Aitortu (by) lizentzia dauka:

Baimenduta dago obra hau edonola ustiatzea, baldin eta egilea aipatzen bada, baita merkataritza-xedetarako eta obra eratorriak sortzeko ere, eta azken horiek ere inolako mugarik gabe banatu ahalko dira.

**Koordinatzailea:**



Argitalpen hau honako finantzaile hauen dirulaguntza jaso du, baina entitate onuradunak du bertako edukiaren erantzukizun osoa.





Lirateke ibaiak  
tanta bakar batekin.

Zer lirateke txaloak  
esku bakar batekin.

Zer litzateke ostadarra  
kolore bakar batekin.

Zer litzateke zuhaitza  
adar bakar batekin.

Zer litzateke ereintza  
hazi bakar batekin.

Zer litzateke lurra  
izaki bakar batekin.

Zer litzateke borroka  
ahots bakar batekin

Zer litzateke indarra  
bataunik gabe.

Patma Galia

## Bizitzari sostengatzen duten utopiak

Guretzat, giza eskubideen defendatzaileontzat, amestea ez da luxu bat, behar bat baizik. Erresistentzia-modu bat, amore ez emateko. Oinazearen, injustiziaren eta beldurraren artean, mundu ezberdin baten ametsari eusten diogu. Ura, lurra, gorputza eta hitza defendatzen ditugunean, ez gara sistema zapaltzaile bati aurre egiten bakarrik ari: beste mundu bat posible dela baieztatzen ari gara. Horixe da gure utopia.

Utopia bat ez da xalokeria hutsa, ezta zerbait urruna ere. Zerbait zehatza da, ausarta, erabat gizatiarra. Bizitza boterearen gainetik jartzen duten komunitateekin amesten dugu. Non justizia ez den berandu etorriko. Non beldurrak ez duen ahotsik isilaraziko. Non gizaki bakoitzak, historian zehar isilarazi dituztenak bereziki, duintasunez bizitzeko eskubide duen.


Defendatzaileok ez dugu min ematen duena bakarrik salatzen. Izan daitekeena iragartzen dugu. Horregatik dira deserosoak gure utopiak. Isiltasunetik eta beldurretik etekina ateratzen duen ordena auzitan jartzen dutelako. Etorkizuna ereiten dugulako, orainak min eman arren. Eta ausardiarekin egiten dugu, xamurtasunez, zainduz eta maitasun kolektiboz.

Amestea eguneroko erresistentzia-mota bat da. Ibaiak zainak balira bezala defendatzen ditugu. Basoak, gure herriaren birrikak bezala. Bizitza, ondasun komuna bezala. Ez dugu miraririk eskatzen. Prozesuak ereiten ditugu. Eta sarri gu ezabatzen saiatzen badira ere, nahiz eta gure izenak titularretan azaltzen ez diren, gure ahotsak zerbait berria ereiten ari dira. Izan ere, herrialde eta mundu hobetoak bat irudikatzeaz gain, gure urrats irmo bakoitzean, kideen arteko besarkada bakoitzean, erresistentzian diharduen komunitate bakoitzarekin eraikitzen ari gara.

Defendatzaileok askatasunez bizi nahi dugu, zorientasun lortzeko, izateko eta loratzeko eskubidea duten emakumeak izateko.

Dalila Argueta

PBI nazioarteko erakunde bat da, 1981ean sortu zena, sinesmen batetik abiatuta: edozein pertsonak eta kolektibok gatazka bat era baketsuan eraldatzen lagundu dezakeela. Nazioarteko bidelaguntza eta babesaren ematen die hala eskatzen duten giza eskubideen pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileei, eta haren printzipioetako bat haien prozesuetan eskurik ez sartzea da. PBI komunitate indigenen, ingurumen-antolakundeen, legelarien, emakumeen antolakundeen eta desagertutakoen senideen bidelaguna da, besteak beste. Tokiko, eskualdeko eta nazioarteko laguntza-sare baten laguntzarekin nazioarteko brigadistak era iraunkorrean egoteak eta duten eraginak, zabaltzen duten informazioak, egiten dituzten sentsibilizazio-, hezkuntza- eta komunikazio-ekintzek indarkeria prebenitzen laguntzen dute. Ikuspegi integral eta ikusmolde holistikotik abiatuta, babes osoko estrategiak segurtasun pertsonala, fisikoa, juridikoa, digitala eta psikosoziala biltzen ditu. Gaur egun, PBI Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen, Mexikon, Nikaraguan (Costa Ricatik), Kenyan, Indonesian eta Nepalen aritzen da pertsona, antolakunde eta komunitate defendatzaileen bidelagun. Gainera, Amerikako eta Europako 12 talde nazionalak osatzen dute.



# Aurkibidea

## I. ABIAPUNTUA

ERRESISTENTZIA-HAZIAK, ERRESILIENTZIA-LURRAK

ASKOTARIKO KARTOGRAFIAK

ZER DA SEGURTASUNA ETA BABES OSOA GURETZAT?

UTOPIAK?

NARRATIBAK, JAKINTZA ETA JARDUNBIDEAK EHUNTZEN DITUZTEN  
METODOLOGIAK

## II. LURRALDE ASKOTAKO DEFENDATZAILE-AKTIBISTEN HERRI UTOPIAK EHUNTZEN

ZER DIRA UTOPIAK?

ASKOTARIKO UTOPIAK

Utopiak kolektiboak dira, pertsonalak; batzuk handiak eta besteak txikiak;  
guztiak berdin balioesten ditugu?

Zer utopia kolektiboren alde borrokatzen dute eta ehuntzen eta aktibatzen dute  
bizitza?

Etorkizuneko helmuga guztiak dira emantzipatzaileak, libertarioak eta  
ongizatezkoak?

Utopiak taldean eraikitzearen indarra

UTOPIAK MUGIMENDU SOZIALEN BARRUAN

Nahi ditugun utopiak orain bizi nahi ditugu

Nondik datoz utopia horiek eta nola txirikordaten dira?

Nola indartzen dira utopiak mugimendu sozialetan?

Zer egin utopia kolektiboak suntsitzean?

UTOPIEN HIERARKIZAZIOA. ZAINTZA ETA ZAINTZA KOLEKTIBOA.

Autozaintza

Zaintza kolektiboa

Osatzea

Pribilegioen, ezberdinkeriaaren eta zaintzaren arteko tentsioa

Aktibismo jasangarriak

Zaintza

EKINTZAK - TRESNA KOLEKTIBOAK, PERTSONALAK, ZAINTZA KOLEKTIBOKOAK  
ETA BABESEKOAK

## III. ERANSKINAK: ZER GALDETZEN DIOGU GEURE BURUARI?

## IV. BIBLIOGRAFIA/ ERREFERENTZIAK

## I. ABIAPUNTUA

### ERRESISTENTZIA-HAZIAK, ERRESILIENTZIA-LURRAK:

2024ko otsailean, Nazioarteko Bake Brigadek (PBI) Euskal Herrian Utopien Herri Bira egin zuten bost herrialdetan lagun egiten dien **antolakundeetako defendatzaile batzuekin**: Kolonbia, Mexiko, Honduras, Guatemala eta Nikaraguakoekin (Costa Ricatik). Solasaldiak eta mahai-inguruak egin ziren Abya Yalako eta Euskal Herriko emakumeen\* eta kolektiboen artean. Baserritarrak, laborariak, feministak, indigenak, ekologistak, komunikatzaileak, migratutakoak: **bizitza, lurra, lurraldea eta natura defendatzeko antolatutako emakumeak\***, geure buruari galdezka: zer arrisku dituzte emakume defendatzaileek/aktibistek Hegoalde eta Iparralde Globalean? Zer eronka ditugu eta autozaintzarako eta zaintza kolektiborako zer mekanismo jarri ditugu abian? Zer utopia irudikatzen dute lurralde bakoitzeko emakume defendatzaile/aktibistek? Zerk errazten edo zailtzen du zaintza kolektiboa eta aktibismo jasangarriak abian jartzea?

Hazia ernatu egin zen, beste hitz eta lurralde batzuk batu eta solasaldiak biltzeaz hitz egin zen, eta prozesu bizi bat sortu zuen horrek, eraikitze bidean dena. Abya Yalako (Mexiko, Kolonbia, Iximuleu/Guatemala, Honduras, Nikaragua eta El Salvador), Afrikako (Kenya, Ekuatore Ginea, Kongoko Errepublika Demokratikoa eta Mendebaldeko Sahara) eta Euskal Herriko (Salcedo, Zeberio, Artea, Atxondo, Morga, Hernani, Zumaia, Zestoia, Getxo, Balmaseda, Galdakao, Bakio, Bilbo, Donostia eta Gasteiz) hainbat lurraldetako emakumeek hartu dute parte.

Beren izenean hitz egin dute, baina mugimenduetan, antolakundeetan, kolektiboetan, kooperatibetan, baratzeetan eta abarretan antolatuta daude. Kontakizunek mina daramate, tristura, nekea eta kezka, baina, aldi berean, indarrez, boterez, sormenez eta kolektibotasunez beterik daude.

### ASKOTARIKO KARTOGRAFIAK

Sistema ekonomiko, neoliberal, kapitalista, zisheteropatriarkal, arrazista eta kolonialaren oinarria mugagabeko hazkundera da, eta baliabideak eta energia kontsumitzea, kapitala metatzeko. Haren botere-sistemek elkar indartzen dute, eta ezberdinkeria eta zapalkuntzak sortzen dituzte krisi globaleko egoera honetan.

Herri eta komunitateetako aktibistak eta defendatzaileak indarkeriei aurre egiteko antolatzen dira, bizitza eta ondasun komunak babesteko eta bizitza duina izateko esperantza eta alternatibak eraikitze. Hala ere, datuek agerian uzten dutenez, sistematikoki egiten diete eraso, haien ahotsak isilarazteko eta erresistentzia kolektiboa ahultzeko.<sup>1</sup>

Bakoitzaren egoera ezberdina dela gogoan hartu arren, defendatzaile eta aktibisten, talde eta antolakundeen, lurralde eta mugimendu sozialen atean **babes-sareak ehuntzea elkar babesteko aukera bat da, alternatibak eraikitzen eta eskubideak defendatzen dituztenen kontrako erasoan eta egiturazko indarkeria hautakorren gorakadari aurre egiteko abagune bat**. Apustu egiten dugu bizi garen lurraldeetatik abiatuta zubi solidoago, sendoago eta erantzukideagoak eraikitzena bultzatuko gaituen ikusmolde feminista, dekolonial eta antirrazista darabilten kartografien alde.

1 DATOS QUE NOS DUELEN, REDES QUE NOS SALVAN - 10+ Años de agresiones contra DDH en Mesoamérica (2012-2023). IM-Defensoras. 200 defendatzaile hil zituzten. Erdialdeko Amerikan giza eskubideak defendatzen diharduten 8.926 defendatzaileen eta 953 defendatzaile-antolakunderen aurkako 35.077 eraso dokumentatu ziren. Lurraren, lurraldearen eta naturaren ondasun komunak defendatzaileen edo horiek defendatzen dituzten antolakundeen kontrako 4.504 eraso ere bai.



## ZER DA SEGURTASUNA ETA BABES OSOA GURETZAT?

“Giza eskubideak defendatzeko gure lanean, ulertzen dugu segurtasuna arriskua ezagutzeko eta kudeatzeko jardunbide-multzotzat dela, **bizitza babesteko eta jarduteko espazio seguruak sortzeko**. Segurtasuna lortzeko, prebentzio-neurriak hartu behar dira, zaugarritasuna eta arriskua txikitzeko; eta prebentzioak huts egiten duenean erreparazio-jarduketak egin behar dira”.<sup>2</sup>

Segurtasunaz ari garenean, antolakunde baten parte direnen osotasun fisiko eta/edo psikologikoa babesteko beraiek abian jartzen dituzten neurri eta estrategia guztiez ari gara. Segurtasun osoa diogu hura osatzen duten alderdi guztiak hartzen ditugulako aintzat: segurtasun fisikoa, digitala, emozionala, legezkoa eta politikoa. Segurtasun osoa leku jakin batean aplikatzen da, egoera zehatz batean, eta, horrenbestez, segurtasun-neurriak une eta maila jakinetara egokitu behar dira (maila politikoa, antolakuntzako, pertsonala). **Abiapuntu horretatik, geure burua zaintzeko eta espazio seguruak eraikitzeko ezartzen ditugun banakako zein taldeko tresnak eta estrategiak partekatzeko apustua egin dugu.**

Halaber, ulertzen dugu babesa dela giza eskubideak defendatzeko erakunde batek defendatzaileen eta komunitatearen segurtasuna bermatzeko garatzen dituen jarduketek multzoa. Babesak hainbat elementu biltzen ditu; esaterako, koiuntura eta arrisku-maila aztertzea, baita lana babesteko eta legitimatzeko estrategiak, mehatxuen kontrako disuasio-estrategiak eta autobabes fisiko eta emozionaleko estrategiak ere. Babes integralaren esparruan, zenbait alderdi indartzeaz ere aritu gaitzke; esaterako, barneko antolakuntza eta kanpoko harremanak eta aliantzak, alderdi psikosoziala eta segurtasun-neurri eta -protokoloak indartzeaz.<sup>3</sup>

### UTOPIAK?

Polikrisiak baldintzatutako mundu-egoera honetan (krisi ekosoziala, zaintza-krisia, giza eskubideena, demokraziarena eta abar), utopiak lantzeko proposamena iruditegi soziokulturalak eraldatzeko beharretik dator. Izan ere, narratiba nagusietan ahalguztiduntasuna (“asmatuko dute krisia ebazteko zerbait”) eta inpotentzia (“ez dago alternatibarik”) dira nagusi, eta bi narratiba horiek erabilgarriak dira statu quo mantentzeko, geldidagoa sustatzen baitute, eraldaketa sozialerako mobilizatu ordez. Ez da harritzekoa gaur egun kultur ekoizpenaren zati handi bat narratiba distopikoekin katigatuta egotea.

Hortaz, agerian jarri behar ditugu hausnartzea eta eraiki nahi ditugun beste mundu bidezko eta desiragarri horietara jotzea ahalbidetuko diguten jardunbide eta epistemologia horiek. Prozesuak abiarazi behar ditugu ondo bizitzea eta bizitza duinak izatea zer den ulertzeko beste iruditegi batzuk ikusarazteko. Eta, hain zuzen, lurra, lurraldea eta ondasun komun naturalak defendatzen dituzten pertsonak (bereziki, emakumeak), antolakundeak eta komunitateak ari dira pertsonak eta natura zaintzean oinarritutako bizitza sostengatzeko beste era batzuk eraikitzen. Funtsezko eragileak dira, beraz, utopiak eraikitzeko.

Batzuentzat, utopia “errealitatea kontuan hartzen ez duen gizarte edo politika xedea; ezin gauzatzekoa dirudien asmoa edo ideia”<sup>4</sup> da. Beste batzuentzat, aldiz, “beste mundu baten utopia posible da”, eta horrek agerian uzten du “herri indigenak bizirik gaudela, lurraren indarrez irauten dugula, munduarentzat bizi onaren haziak ereiten” (Ángel Sulub, maia komunitateko liderra eta poeta).<sup>5</sup>



<sup>2</sup> SEMBRAR PARA RESISTIR Metodologías de seguridad y protección integral para personas defensoras de derechos humanos en Honduras (PBI)

<sup>3</sup> Nazioarteko Bake Brigadak (PBI). 2023. El camino de la protección integral (Irene Santiago y Vicente Valliés): [https://pbi-ec.org/sites/default/files/2024-12/MODULO02\\_elcaminodelaproteccion%5B1%5D.pdf](https://pbi-ec.org/sites/default/files/2024-12/MODULO02_elcaminodelaproteccion%5B1%5D.pdf)

<sup>4</sup> Euskaltzaindiaren Hiztegi

<sup>5</sup> <https://editorial.tirant.com/es/libro/diversidad-resistencia-y-utopia-los-pueblos-indigenas-de-nuestro-tiempo-juan-daniel-oliva-martinez-9788419071163>

Boliviako Giovanna Rivero idazleak<sup>6</sup> dioenez, “utopiak hizkuntzan jaiotzen dira, horregatik dira utopiak, haien plazenta irudimena da, eta badakigu irudimena mundu ezagunaz besteko izenetan egiten dela bideragarri. Utopia esperantzazko zeruertz partekatu bat da, oraindik urrun dugun arren batak besteari komunikatzen dion kontakizunean legenda modura ager daitekeena”.

Egoera basati honetan, zaila da etorkizuna irudikatzea, baina amestu ezean nola egin aurrera? Nola, egindako lorpenak ospatzen ez baditugu? Nola jo etorkizun desiragarrietara, naturaren eta bizi garen lurraldearen erritmoei entzun ezean, trauma kolektiboak osatzen ez baditugu, zapalkuntzak izendatu ezean, gure pribilegioak kudeatu ezik? Esperantza sortzen duten kontakizunak eraiki behar ditugu, iruditegi desiragarri, bidezko eta ekosozialak imajinatu behar ditugu, eta guztiontzako mundu bizigarriak. Eta onartu behar dugu etorkizun horietarako bideak urratzen ari garela dagoeneko, defendatzaileen, komunitateen eta lurraldeen etengabe lanari esker. Utopia habitatuak dira, eraldaketa ekosozialerantz oinez egiten jarraitzera bultzatzen gaituzten helmugak.

Baina erronka handia da utopia sakonak, tokikoak eta nazioartekoak ehuntzea, askotariko estilo, jatorri eta ikusmoldeak eta horiek gurutzatzen dituen askotariko indarkeriak biltzen dituztenak. Lan horrek egitura eta sinesmen pertsonalen, kolektiboen eta lurraldekoen artean murgiltzera gonbidatzen gaitu, arreta buruan, bihotzean eta erraietan jartzera. Gudan eta gure erakundeetan deskolonizazio- eta interseksionalitate-prozesuak behar ditugu, eta bizi garen lurrari eta lurraldeari aitortza egin behar zaio, Hegoalde eta Iparralde Globalen artean elkarri laguntzeko sare horizontalak eraiki nahi baditugu.

Apurka-apurka eraiki ditugun utopia horiei entzuten diegu, mundu hobe bat eraikitzeko gidatzen, adoretzen edo bultzatzen gaituzten helmugak baitira.

## NARRATIBAK, JAKINTZA ETA JARDUNBIDEAK EHUNTZEN DITUZTEN METODOLOGIAK

Ehun narratibo bat balitz bezala, goxotasunetik eta zaintzatik abiatzen gara eta handik egiten dugu lan, inpaktu eta estrategiei, tresnei eta erresistentziei buruzko kontakizunak dakartzaten espazioetan hasten gara, eta han ehuntzen dugu. Antzinakoa eta egungoa jakintza darabilgu, bakearena eta justizia sozialarena, tokiko ekonomiarena eta lan komunitarioarena, naturaren eta agroekologiaren arteko loturarena, gobernantza- eta erakunde-ereduena, ingurune zakarretan eta egunerokoan bizirik irautearen ingurukoa. Hainbat gai jorratzen ditugu; esaterako, segurtasuna, babesa, laguntza-sareak, zaintza eta buruko osasuna. Hainbat lurraldetako 300 ahots:

- 7 elkarrizketa *Utopien Herri Biran* (168 parte-hartzaile, guztira)
- 1 tailer: “Aktibismoak, zaintza kolektiboak eta lurra-lurraldea” (25 defendatzaile)
- 3 ekitaldi publiko (67 lagun)
- 16 inkesta sakon defendatzaile-aktibistei
- 1 online truke/foro (4 defendatzaile-aktibista)
- 1 aurre aurreko truke/foro (4 defendatzaile-aktibista)
- 1 webinar: “Defendatzaile-aktibistak; inpaktua eta estrategiak, autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?” (16 defendatzaile-aktibista)

<sup>6</sup> <https://www.ramonacultural.com/contenido-r/traduccion-utopia-y-poder-afectivo-en-las-lenguas-indigenas/>



Feminismo komunitarioa<sup>7</sup> dugu inspirazio-iturri, zeinak, hain zuzen, teorizatzen baitu borrokarako lehen lurraldea gorputza dela, eta bidean gurutzatu ditugun emakume defendatzaile eta aktibisten esperientziatik abiatuta, taldean, aurkeztu ditugun segurtasun- eta babes-estrategiak deskribatu ahal izan ditugu.

Herri-hezkuntza<sup>8</sup> izan da gure iparrorratza geure esperientzietan, jardunbideari eta testuinguru sozialari buruzko elkarrizketan oinarritutako ikasketa-prozesuan, duintasuna berreskuratzeko eta eraldaketa sozialak sortzeko ezagutza erdiesteko.

Proposatuko ditugun hausnarketek eta analisiak gure bizitzako sentimenduekin, adierazpideekin, pentsamenduekin eta jokatzeko moduekin zerikusia dute, gure testuinguru sozial, geografiko eta politikoarekin. Eta halaxe jaso ditugu, elikatzeko, eta ez, ordea, epaitzeko.

Prozesu honen emaitza eguneroko honetan islatuta dago, baita gure webgunean hainbat hizkuntzatan topatuko duzun mapan ere. Jakintzari, zaintza kolektiboari eta etorkizuneri buruzko kontakizunak biltzen saiatu gara; esperantza aktiboak, garai latzetan.

**PBI-EEK koordinatua - Espazio-emaileak, hitz-iruleak eta errelatoretzak grafikoa:** Sara Álvarez Medrano eta Enma Aguilar Torontiletik eta Mar Garrote Calvo PBItik.

**Eskerrik asko hemen izendatuko ditugunei baino askoz emakume gehiagori, espazio asko posible egiteagatik:** Rosa, Teresa, María, Lilian, Jilma, Leslie, Samantha, Norma, Milbia, Salima, Marie Lucia, María Esther, María Isabel, Dalila, Zenayda, Ana María, Karen, Mishel, Lolita, Carla, Katia, Isabel, Nadia, Elena, Bea, Zuleima, Lur, Vane, Bea, Oihana, Amets, Sonia, Ane, Mónica, Guillermina, Rebeca, Su, Idoia, Malu, Arantza, Maite, Cris, Itziar, Carol, Ainara, Ariadna, Sara, Virry, Miriam, Mar...

**Eskerrik asko gurea ez baizik eta jende askorena den dokumentu honi ezagutza komunitarioko hazi horiek emateagatik.**



7 Haesbaert, R. (2020). Del cuerpo-territorio al territorio-cuerpo (De la tierra): contribuciones Decoloniales; [https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S2007-81102020000200267](https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S2007-81102020000200267)

8 Hezkuntza-mota hori Paulo Freire hezitzaile brasildarrek garatu zuen.

Hasieran nondik hitz egiten den aipatu dugu, erbestetik edo lurralde bakoitzetik. Narratibok kolektiboetan antolatutako emakumeengandik datoz, eta haien izenean eri ez badira ere, ikusarazi egin nahi ditugu, haien lanari ikusgaitasuna eman nahi diogu. Hona hemen **2024ko otsailetik gaur arte nola edo hala lurraldetik bertatik nola Euskal Herrian erbesteturik parte hartu duten antolakundeak:**

Catacumboko Laborarien Elkarte (ASCAMCAT) Kolonbia.

Lurra eta Ura Defendatzeko Herrien Frontea. Morelos, Puebla, Tlaxcala (FPDTA-MPT). Mexiko.

Laborarien Antolakundeen Verapazeko Batasuna (UVO). Iximuleu/Guatemala.

Laborarien Zentral Nazionala (CNTC). Honduras.

Emakume Pinoleren Sarea (REMUPI). Nikaraguako antolakundea, Costa Rican erbesteratua.

Radio Progreso. Honduras.

Olopako Maia-Ch'orti' Kontseilu Indigena. Iximuleu/Guatemala.

Eliza arteko Justizia eta Bake Batzordea. Kolonbia.

Inuka Kenya Ni Sisi (itzulpena: Esnatu, Kenya). Kenya.

Somos Parte del Mundo. Ekuatore Ginea.

Amerika Erdialdeko Defendatzaileen Ekimena. IM-Defensoras. Erdialdeko Amerika.

Ehun Soziala Berreraikitzeko Alorra, Kolonbiako Nazioarteko Bake Brigadak.

K'iche' Herrien Kontseilua eta K'iche' Emakumeen Sarea. Iximuleu/Guatemala.

Hondurasko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sarea.

Meatzaritza Proiektuen kontrako Guapinlko Erresistentzia. Honduras.

Francisco Sánchez Mugimendu Bateratua 1932 - MUFRA - El Salvador.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionala (UNMS) Mendebaldeko Sahara.

FAMEK Elkarte. Euskadi eta Kongoko Errepublika Demokratikoa.

Mujeres con Voz elkarte. Euskal Herria.

Mujeres Tejiendo Red elkarte. Euskal Herria.

Bidez Bide. Euskal Herria.

Ekimen Elkarte. Euskal Herria.

Maskilu Konserbera Agrologikoa. Euskal Herria.

Basoa, defendatzaileen etxea Euskal Herria.

Artea Sarea. Euskal Herria.

Etxaldeko Emakumeak. Euskal Herria.

Makatza. Euskal Herria.

Kafranga. Euskal Herria.

Igitie. Euskal Herria.

Amillena. Euskal Herria.

ENHE-Bizkaia. Euskal Herria.

Etxalde. Euskal Herria.

Tierra, Papel, Tijera. Euskal Herria.

Araba Bizirik. Euskal Herria.

Pachamama elkarte. Euskal Herria.

Amillubi. Euskal Herria.

Biolur. Euskal Herria.

Kulturarteko Plaza Feminista. Euskal Herria.

EH Bizirik. Euskal Herria.

Alkarzain- Aholkularitza Gerontologikoa. Euskal Herria.

Mimosak Ortu Komunitarioa. Euskal Herria.

Galdakaoko Elkarlaguntza Sarea. Euskal Herria.

Jauzi Ekosoziala. Euskal Herria. Ekologistak Martxan. Euskal Herria.

## II. LURRALDE ASKOTAKO DEFENDATZAILE-AKTIBISTEN HERRI UTOPIAK EHUNTZEN

Garai nahasi hauetan, zibilizazio-krisi betean gaude, lurraldea arpilatu izanaren ondorioak ukaezinak dira, gerrak eguneroko narratiban eta esperientzian murgildu zaizkigu, heriotzak onartu beharrean gaude egunero, deshumanizazioak betiketozen jarraitzen du, eta elkarren etsaiak izatea sustatzen da.

Hala eta guztiz ere, bizitzak taupaka daude oraindik; aurpegiak elkar topatzen dute, irribarre egin nahian; bizitzan sinesten jarraitzen dugu; egunerokoan utopiek aurrera jarraitzen dute, esperantza ematen segitzen dute, helmugak ematen dizkigute justizia soziala, ongizate komuna eta bizitzaren sarea zaintzeko indarra eraikitzeko.

Elkartrukean izan ditugun defendatzaileen eta aktibisten narratibek oinazea eta tristura, nekea eta kezka badute ere, indarrez, boterez, sormenez eta kolektibotasunez beteak ere badaude. Bitasun hori agerikoa da une oro: bizitza edertasunez eta izugarrikeriaz bete dago. Gure gorputzek ere bitasun hori daramate egiten dugun guztian.

### ZER DIRA UTOPIAK?

**Zuretzat, zer dira utopiak?** galdera egin genuenean. erantzun sakonak eta kolektiboak eman zizkiguten, prozesu komunitario eta lurraldekoen parte direnak, egunerokoan oinez egiten laguntzen dieten utopiak partekatu baitzituzten.

Utopiak edo utopia:

- *“Gizakiaren abileziak eta dohainak bizitzaren zerbitzura jartzea”, “oinez egiten laguntzen duten ideiak dira, sentitzen dudak eta gorputzean bizi dudak horretan daukadan fedea”.*
- *“Merezi dugun mundua da, gizakien onurarako egina. Herrialde bidezko eta jasangarri bat”.*
- *“Gure helmugak dira, batera existitzen garen izaki guztiak harmonian bizitzeko krokisa”.*
- *“Hobeto elkarbizitzen ikasten jarraitzeko sakoneko ahalegin kolektiboak dira, edo epe luzekoak. Urrats txiki bakoitza, hautemanezina edo hutsala badirudi ere, mundu hobea baten eraikitzeko borroka handiaren parte da”.*
- *“Utopia, hitzak berak dioten bezalaxe, leku iritsezin bat da. Baina nora joan nahi dugun jakin beharra daukagu. Ez gara iritsiko, ez soilik etsaiak oraingoz boteretsuagoak direlako, baizik eta utopiaranzko urrats bakoitzean hausnarketa berriak sortzen direlako eta gure ideiak moldatuz goazelako, errealistagoak bihurtu arte. Horrela da posible utopiak hemen eta orain eraikitzen hastea”.*
- *“Niretzat, utopiak ez dira helmuga perfektuak, baizik eta aukerak: elkarrekin irudikatzen eta forjatzen ditugun munduak. Inor erabili eta botatzekoa ez den espazio bat da utopia bat, zaintzea baldintzapekoa ez den leku bat, non komunitateak lurrarekin orekan egiten baitute aurrera. Erabat sinetsita nago era txiki eta erradikaletan utopiak eraikitzen ari garela: elkarren laguntzarekin, baratze komunitarioekin, antolakuntza feministarekin, narrazio-zirkuluekin eta osatze-espazioekin. Horiexek dira ereiten ditugun haziak: maitasuna, ausardia, erantzukizuna eta esperantza. Baliteke txikiak ematea, baina zaintza- eta erresistentzia-ekintza edo amets kolektibo bakoitza amets handiago baten parte da”<sup>9</sup>*

Defendatzaile aktibistek beraiek, amesten dugun herrialdearen eta munduaren desirak urrun ikusten badituzte ere, identifikatzen dituzte egunerokoan ereiten ari diren haziak.

<sup>9</sup> Inkestak

Utopia-maila askotatik helmuga hurbilagoak eta egunerokoari lotuagoak izendatzen dituzte, bizitza eraldatzeko haziak, “duintasunerako, moteltasunerako, naturaren erritmorako eskubidea”, adibidez. “Maitasunetik oinez egitea”. Horrela deskribatzen dituzte **utopia-hazi batzuk, egunero ereiten ditugunak**, eta “errealitate egiten d(ir)ena(k) ha(ieta)rantz erabakitasunez jotzea erabakitzen dugunean”.

Defendatzaileen ustez, utopiak dira bai behar dituzten aldaketa sozial, kultural, politiko eta ekonomiko handiak, bai epe luzeko eraldaketak sostengatzen dituzten eguneroko aldaketak. Hona hemen eguneroko hazi estrategiko batzuk:

- “Utopia da bizitza motela eta errurik gabeko zaintza”.
- “Emakumeen zirkuluak antolatzea, patriarkatuak hautsi zuena osatzeko”.
- “Nire arbasoen hizkuntza lotsarik gabe entzutea eta erabiltzea”.
- “Komunitateak bere kausa defendatu zuelako ibaia berriz libre dabilenean”.
- “Hazia ni naiz, eta nire proiektua hezurmamitzea”.
- “Nire komunitatea emakume batek borrokan jarraitzeaz harro dagoela entzutea”.
- “Doluak osatzea eta zauriak ixtea, enpatiazko ulermenetik eta elkarrizketatik abiatzeko”.
- “Besoz beso ditudanekin bestelakoa izan naiteke; bazterrean nor uzten dudana, nire pribilegioak zeintzuk diren (berrikusiz)”.
- “Hitz idatzia, belaunaldien arteko komunikazioa”.
- “Min ematen duena izendatzea, gertatzen dena esatea”.
- “Istorioak gugandik kontatzea”.
- “Xamurtasuna eta adeitasun-keinua, adorea eta konpainia emateko hitzak”.
- “Erantzukizunak norbere gain hartzeko ekintzak”.
- “Europari eta, batez ere, Euskal Herriari gure aitona-amonen garrantzia gogoraraztea. Haien boterea berreskuratzeko eta duintasunez hiltzeko bidean lagun egitea”.
- “Komunitatea bizitza bere potentzial guztian bizitzeko zutabe bat izatea”.
- “Nire itzalari begiratzea neure argia topatzeko, eta besteei lagun egin ahal izatea, horixe egin dezaten”.
- “Eraikitzen ari garen utopien haziak dira elkartasuna, parte izatea, kontzientzia, aktibo izateko ohitura, pentsamendu kritikoa, pertsonak aldatzeko desira eta abar. Horrek guztiak bultzatzen gaitu utopiarantz arraun egiten jarraitzera”.<sup>10</sup>

Feminismoek pertsonala dena politikoa dela onartzeak esan nahi du egunero egiten dugula bizitza, egunero egiten dugula nahi dugun mundu hori, nahi ditugun loturak bultzatzen eta eraikitzen dituen hiru guztia aintzatetsiz, bizitza-narratiba bat sortuz, zeinetan zaintza, antolakuntza eta gure elikagaiak eta afektuak egunero ereiten diren.

10 Inkestak

## ASKOTARIKO UTOPIAK

Utopiak kolektiboak dira, pertsonalak; batzuk handiak eta besteak txikiak; guztiak berdin balioesten ditugu?

Aktibista defendatzaileekin egindako elkarrizketetan, haien utopien maila eta tamaina konplexuago bihurtuz joan zen. Hain zuzen, honako hau zioen haietako batek: “niretzat, bi utopia mota daude; amesten ditugun utopia handiak eta egunerokoan lor ditzakegun bitartekoak. Ari garena sentitzen dut: prozesuak eraikitzen”.



Hortaz, hainbat utopia-maila ditugu: norberaren utopiak, gorputzarenak; eta besteekiko utopiak, komunitatearekikoak eta lur eta lurraldearekikoak.

Askoz utopia globalagoak ere badaude, esplotazio-sistema edo hierarkien, indarkerien eta zapalkuntzen mundua aldatzekoa, adibidez; baina mugimenduen barruan ere badaude beste utopia batzuk, matxismoa, arrazismoa eta ezberdinkeria aldatzekoa, esaterako. Hau da, hurbileko errealitateak aldatzean dautzanak, bikote-harremanetan, adibidez, maitasun erromantikoaren ideiatik harago. “*Bizitza duinak izan nahi ditugu, eremu guztietan*”. Honako hauek partekatu zituzten aktibista defendatzaileek:

*“Utopia txikien parte izan liteke zaintzari garrantzia emanez joatea, ez baitago kontzientziarik. Antolakundeetan gertatzen ari den guztia ikusita, uste dugu zaintza ez dela soilik kanpoko erasoei dagokiena, baizik eta guk geure burua, geure gorputzak eta espirituak zaintzea, indarkeria ugari bizi baitugu. Geure buruari denbora ematea zeinen garrantzitsua den konturatzen ari gara, eta horrek ere borroka-estrategietan presente egon behar duela.*”

Maila pertsonalean ditugun utopia horiek ematen digute era kolektiboagoan ere aurrera egiteko aukera. Horregatik da horren garrantzitsua lidergoak lantzea; bestela antolakundeek ezin baitute aurrera egin. Gero, emakumeek, baztertu egi sentitzen badira, antolakundeetatik irteerako joera dute, komunitateko lana uztekoa, familia zaindu ahal izateko. Antolakundeek beren barrenak aztertzeo ardura dute, emakumeek antolakundeetan egiten duten ekarpena balioets dadin. Izan ere, komunitatean ekarpena egin ondoren, etxera itzultzen dira egiteko dagoen guztia egiteko. Emakumeek gorputza eta gogoia zaindu beharra daukagu. Garrantzitsuak gara gizarteak aurrera egin dezaten. Kezkatzen gaituzten zama emozionala

*sentitzen dugu, baina askotan ez diogu gorputza zaintzeari garrantzirik ematen, egunerokoa konpondu nahi horretan. Gogoak atsedean har dezan, ezinbestekoa da gorputzaz arduratzea, arnasa hartzea. Utopia horiek norbanakotik kolektibora egiten dute, mugimenduen eta herrien borroketara arte”.*<sup>11</sup>

Hausnarketa horiek agerian uzten dute aktibista defendatzaileek zer sentipen eta pentsamendu pertsonal eta kolektibo dituzten utopiak beraien sentipenetatik lehenesteari buruz. Kanpoko eskariak direla eta, utopiak hierarkizatu beharra dago. Adibidez, zenbait une eta mugimendutan, emakumei, emakume indigenei edo LGTBIQ+ komunitateari eskatzen zaie ez ditzatela mahaigaineratu beren behar espezifikokoak, barneko matxismoak, arrazakeriak edo lgtbiq+fobiak, garrantzitsuena borroka globalak eta egiturazko aldaketak direlako, eta, hortaz, bazterrean uzten dira askotariko gorputz eta lurraldeen berehalako behar estrategikoak.

Gaur egun inoiz baino gehiago, emakumeek aldaketa orotan egiten dute ekarpena; izan ere, emakumeen edo gorputz disidenteen kontrako indarkeriarik edo arrazakeriarik gabeko bizitza bat, esaterako, lurraldea defendatzeko, klase borrokarako eta abarretarako aldaketa ezinbestekoa da. Utopia guztiak dira garrantzitsuak, maila orotan, eraikitako guztiak utopia handiagoentzat balio baitu.

### Zer utopia kolektiboren alde borrokatzen dira eta ehuntzen eta aktibatzen dute bizitza?

Defendatzaile aktibistek utopia kolektiboez hitz egin zigitenean, elementu komun bat topatu genuen lurra, lurraldea, ura, bizitza, ondasun naturalak eta bizi-forma guztiak babesteko egin zuten apustuan. *“Emakumeek funtsezko zeregina dute lurraldearen babesean”*, berretsi zuten. Prozesu horiek lurraldeen eta komunitateen autonomia indartzearekin lotzen dituzte. Ildo horretan, kideetako batek adierazi zuen zeinen garrantzitsua den kenyar herritarren nortasun kolektibo bat sortzea, bizitzak hobetzeko, gobernantza ona eskatzeko eta guztion ongizatea hobetzeko. *“Nire ametsa zen guztiok aurrera egiteko moduko gizarte bat, ez soilik bizirik iraun behar den gizarte bat; bizitza oro ohoratuko eta ahots oro altxatuko lukeen mundu bat”.*<sup>12</sup>

Lurraldea defendatzeari dagokionez ere, maien mundu-ikuskeratik, honako hau azpimarratu zuten: *“bizitzaren, lurraldearen, espiritualitatearen eta abarren arteko harremana ez da lurrarekiko konexio huts bat, baizik eta bizitza sostengatzen duen espazio sakratu bat. Komunitateok ura eta lurraldea gure mundu-ikuskeraren, nortasunaren eta biziraupenaren partetzat jotzen dugu”.*

Gehienek giza eskubideen defentsa ere nabarmendu zuten, eta emakumeen, herri indigenen eta laborarien eskubideak azpimarratu zituzten, baita laborarien nekazaritzaren eta elikadura-subiranotasunaren aldeko apustua ere, eta, gainera, batzuek ikusmolde agroekofeministako mailakako agroekologia indartzearen garrantzia ere azpimarratu zuten. Hori guztia, gainera, beste behar batzuekin lotu zuten. Honatx: *“elikadura subiranotasunaren alde egiten dugu lan, eta elikagaiak era kolektiboan eta baldintza duinetan ekoizten eta erosten ditugu. Etxebizitza Batasunean ere etxebizitzarako eskubidea bermatzeko lan egiten dugu, eta komunitatean askotariko ekimenak antolatzen ditugu komunitate bidezkoago eta solidarioagoa eraikitzeko. Gainera, Euskal Herriko beste talde batzuekin sare-lana egiten dugu”.*

Aktibista defendatzaileek beste utopia kolektibo batzuk ere partekatu zituzten; besteak beste, emakume migratzaile, indigena eta etzeko langileen eskubideen aldeko sareak ehuntzeko apustua, *“emakume errefuxiatuen eskubideak eta indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidearen defentsa”*, eta kolektibotasunean zahartzeko eredu berriak sortzea, adinekoei boterea emango dietenak.

<sup>11</sup> Online elkartrukea

<sup>12</sup> Inkestak

## Etorkizuneko helmuga guztiak dira emantzipatzaileak, libertarioak eta ongizatezkoak?

Zer gertatzen da inperioaren<sup>13</sup>, boterearen eta zapalkuntzaren iruditegiekin? Elkarrizketa horiek oso hunkigarriak izan ziren, pertsona eta gazte asko inperioaren iruditegiaren atzetik baitabilza, eta hori, azkenean, zapalkuntza-sistemak elikatutako aspirazio kolektibo bilakatzen da: boterea eta dirua lortzeko amerikar ametsari jarraitzea edo narkoan sartzea. Desira horien boterea ez dugu auzitan jarriko, jende askok bere bizitza hortik bideratzen baitu. Q'eqchi, Poqomchi eta Achi herrietako kide maia gazte batek hau esan zigun:

*“Abiapuntuko aspirazioak kolektiboak dira, iruditegi batzuk zerikusia dute inposatutako sistemekin, haietatik baitatoz, eta zaila da gazteek borroketan jarraitzea, batez ere sistematik ikasitako ametsak dituztenek. Migrazio-maila handiez ari naiz, saldu diguten amets hori lortzeko migratzeaz, esaten digutelako garbigailua eta berogailua edukitzea bizitza ona dela. Etengabeko borroka da, baita buruarena ere, gure zati batek uste baitu hori izan daitekeela bizitza ona. Gazteek uste dute ospa egin behar dutela bizitza ona nahi badute. Joan egiten dira, eta arriskua dauka; batzuek, aspirazio hori bete nahian, bizia galdu dute. Egoera gogorak ere badaude, borrokako kide batzuen, adibidez: egoera ekonomikoa tarteko, joan egin behar izan ziren, gabezia handiak baitzituzten, batzuk aitaren lana egitera, beste batzuk lan bila eta abar”.*

*“Idealen etengabeko borroka bat dago, zer den bizitza ona eta zer ez, eta horri sare sozialen inpaktua batu behar zaio. Hori komunitaterik urbanizatuenetan gertatzen da, baina komunitate urrunetan ezberdina da. Komunitate urrunetan matxismoa eta helduzentrismoa ere badago, eta emakume gazte batzuen bide bakarra senarra topatzea da, bestela ez baitute bizitzarik, zaila da beste bizitza bat edukitzea; komunitate urrunetan zaila da ikasteaz edo beste bide bat bilatzeaz pentsatzea. Matxismorik eta helduzentrismorik gabeko komunitateak utopien parte dira, kontua ez da haurrak eta familia edukitzea, baizik eta beste bizi-proiektu batzuk, horiek ere geure ametsak dira eta”.*

Mexikotik, hau zioten: *“inperioaren iruditegia gogoan dudala, gazte batzuek, Mexikon, krimen antolatuaekin bat egiteko ametsa dute, buruzagi bihurtzeko eta boterea, dirua eta kontrola edukitzeko, baina hori gazteak kaltetzen ari da. Inportantea da onartzea desira horiek ere logika hegemonikoetatik datozela, eta inperio horiek etengabe indartzen ari dela. Izan ere, gure logika emantzipatzailetik, utopia eraldatzaileak bakarrik daude, bizi onaren utopiak. Onartu beharra daukagu beste batzuk ere badaudela, eta eraldatu egin behar ditugula: ondo bizitzea, ezin hobeto bizitzea, boterearekin, eta horretarako krimen antolatuaren parte izatea arrakasta latza izaten ari da Mexikon”*<sup>14</sup>

Narratiba horietan bat zetozen, Erdialdeko Amerikan migrazioari buruzko iruditegi jakin bat baitago, “gure lurraldeetatik” kanpo bizi hobea dagoen ideia. Mundu guztiak ez du zapalkuntza-sistematik kanpoko etorkizunerako aspiraziorik. Hausnarketa kolektibo bat egin zen eraikitzen ari garen munduaz: inperioa indartzen duen bat edo bizitza emantzipatzailea eraikitzen duena.



<sup>13</sup> Inperioaren iruditegi terminoa darabilgu zapalkuntza-sistemaztat erabilgarriak izateko inperioak guk jarraitzea nahiko lukeen ideologia, iruditegi eta itxaropen hegemoniko guztiak deskribatzeko. Inperiotzat jotzen dugu sistema neoliberal, kapitalista, arrazista, merkantilista, kolonial guztien multzoa, zeinek ama lurra arplatu beharreko beste elementu bat dela ulertzen baitute, eta pertsonak, pertsona eta lurralde gehienen kaltetan gutxi batzuei aberastasuna eta onura ekartzeko tresnak direla.

<sup>14</sup> Online elkarruketa



*“Migrazio-olde horrek gazteei eragiten die, ustezko garapen hori bizitzeko desira sartzen baitie. Horregatik, oso garrantzitsua da gure utopien ardatza nortasuna, zaintza eta gu garen hori indartzea izatea, eta aztertzea bilatzen ditugun utopiak gureak diren edo alienatuta gauzkatena diren, sistema berriz ere funtzional egiteko. Geure buruari dekolonizatzen nola laguntzen diogun, nola laguntzen diogun pentsamendu eurozentrikoa edo estatubatuarra kentzen; gure arbasoen jakintza berreskuratzea dagokigu”.*

*“Migrazioarekin jarraituz, itxaropen horiek gazteek artean nagusitzen dira, baina helduek ere migratzen dute, emakumeek ere bai. Saldu dizkiguten ideal horiek, ordea, gazteek dituzte gogoan gehien. Ikusi beharra dago horiek ez direla utopiak, ez direla idealak, hau da, inperioaren desirak ez direla bizitza ona. Nola aldatu ditzakegu gutxika ideal horiek gure lurraldean benetako idealekin? Norekin partekatzen ditugu utopia horiek? Garrantzitsua da gazteek utopiak birpentsatzea?”<sup>15</sup>*

Garrantzitsua da bizi-utopia emantzipatzaileen eta inperioa elikatzen duten iruditegi edo desira horien arteko aldeaz hausnartzea. Horretarako, hausnarketarako espazioak zabaltzen jarraitu beharko da, egunero eraiten ari garen borrokak, ametsak, utopiak berrikusteko, eta aztertzeo norekin ari garen horiek pentsatzen eta ondo bizitzetik, bizitzaren jasangarritasunetik, pertsonen arteko zaintzatik eta bizitzaren sarearen zaintzatik elikatzen.

### Utopiak taldean eraikitzearen indarra

Aktibista defendatzaileek bereziki azpimarratu zuten beste batzuekin beren burua sentitzeak eta pentsatzeak zer ekarpen egin dien ezinezkoak edo hutsalak ziruditen beste utopia batzuk birpentsatzeko, hausnartzeko eta horiekin konektatzeko. Beste partaideek bestelako iruditegiak, bestelako desirak eta utopia posibleak erakusteak gainerakoek zeruertzak zabaldu zituen. Horri dagokionez, honako hauek esan zituzten kideek:

*“Gaur egun, gutako batzuk mundu honen bestelako utopia batzuk eraikitzeo aukera eman ziguten antolakuntza-prozesuetatik gatoz. Gure bizitzan, unerren batean, gu ere zapalkuntza-sistemek alienaturik egon ginen, esaterako, uste baikenuen indigena izateari uztea zela gure aspirazioa; maia arropak erabiltzeari eta gure hizkuntza egiteari uztea zela jarraitu beharreko bizi-eredua. Baina, gero, beste batzuekin trukean aritu ondoren, hausnartu ostean eta historia ulertu eta zapalkuntza-sistemen helburuak konprenitu ondoren, gure iruditegiak eta desirak aldatu ziren, eta gure nortasuna indartu genuen, maia izaeratik. Orain, gure herrietan bizi den utopia autodeterminazioa da, gure arropak eta arbasoen hizkuntza erabiltzea, elikadura-subiranotasuna eta abar”.*

*“Garrantzitsua da utopiak norekin pentsatzen ditugun jakitea; izan ere, hainbat aktibistak beste utopia batzuetan pentsatzen lagundu ziguten beste kolektibo batzuk topatu genituen bidean. Adibidez, egungo egoera dela eta, baliteke gazteak ikasten aritzea denetan garrantzitsua boterea dela, eta dirua kosta ahala kosta lortzea. Beste aukerarik ez badute, gizarteak saltzen dien gidoi horri jarraituko diote”.*

*“Hala eta guztiz ere, guk, aktibistok, beste batzuei entzuteko aukera izan genuen, eta bizitza beste era batzuetara bizi genezakeela erakutsi ziguten; eta horrela maitemindu nintzen indigena izateaz, maia izanik beren burua maite zuten emakumeak ikusi nituelako”.*<sup>16</sup>

Utopiak, antolatuta zaudenean, aldatu egiten dira; taldean zaudenean, kontzientzia soziala sortzen da. Horregatik, geure burua birpentsatzeko eta geure burua beste batzuen aldamenean sentitzeko apustua egin behar dugu. Hain zuzen, hortik dator beste utopia batzuk motibatzen eta elikatzen dituzten beste kolektibo batzuekin, beste bizimodu batzuekin, topo egitearen garrantzia. Era horretan zabaldu zituzten mugimendu feministek eta emakume indigenen mugimenduek beste bide batzuk, emakume askorentzako beste helmuga eta utopia batzuk. Honela osatu du beste kide batek:

15 Online elkartrukea

16 Online elkartrukea

*“Mugitzen nauten utopiei eta beste mugimendu batzuekin duten loturari dagokienez: mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduek mugitzen naute, haiekin gauzak partekatzea baita benetan indartzen nauena eta borrokan jarraitu behar dudala esaten didana. Beste mugimendu batzuek ere mugitzen naute, jatorrizko herrien mugimenduek, haien utopia batzuk nahikoa konektatuta baitaude emakumeok ditugun utopiekin”.*

*“Emakume indigeneak bizitza ikusteko oso bestelako erak ditugu, mugitu egiten nautenak; laborarien mugimenduaren utopiek ere mugitzen naute, lurraldearekin zerikusia baitute; eta mugimendu ezberdinak badira ere, denak dauka lurraldearekin, zaintzarekin eta babesarekin zerikusia, ezberdin bideratuta bada ere. Gehien mugitzen nautenak, ordea, mugimendu feministak eta emakume indigeneen mugimendua dira, bizitza eta lurraldea ulertzeko haien moduak bizia eta borroka honetarako indarra ematen dizkit; zeren, bai, nekeza da, batzuetan estresa bizi dugu, neke, eta geure buruari galdetzen diogu zergatik eman bizitza honetan. Emakumeen espazioletara itzultzean, ordea, indarberritu egiten gara. Ni emakumezko zenbait kidearekin gauzak partekatzen aritu naiz. Batzuekin batera negar egin dut, beste batzuek ez zuten hainbeste hitz egin, komunitateetan ere askotariko errealitateak daude. Horrek bultzatzen gaitu aurrera jarraituzera; bizia berreskuratzen duzu, eta horren parte zarela sentitzen duzu”.*

Zalantzarik gabe, kolektibotasuna funtsezkoa da bizi-helmuga berriak eraikitzeko. Krisi-garai hauetan, espazioak eduki beharko dira sentitzen duguna eta gertatzen zaiguna partekatzeko eta agertoki berrietara begiratzeko.

## UTOPIAK MUGIMENDU SOZIALEN BARRUAN

### Nahi ditugun utopiak orain bizi nahi ditugu

Aktibista defendatzaileak (Abya Yalan deitzen zaienez) edo militanteak (Euskal Herrian erabiltzen denez) izateari buruzko hausnarketek mahai gainean jarri dute oinordetzan jaso ditugun aktibismoetan dena besteengatik egin beharra zegoela, aldaketak lortzeko dena alde batera utzi behar zela (etxeak, haurrak, familia), borrokaren izenean. Utopietara iristeko modu horrek eragina izan du belaualdi berrietan eta antolatzeko egungo moduetan. *“Orain geure buruaz pentsatzen ari gara, lehenbiziko lurraldearekin, hau da, gorputzarekin konektatu dugu, eta planteatzen dugu ez dela posible gure bizitzak ez merezi izatea. Eraikitzen ari garen bizitza hau bizi nahi dugu, eta amets horiek hezurramitu egiten ditugu, egunerokoan haziak ereinez. Hemen eta orain bizi nahi dugu guk nahi dugun bizitza hori”.*

Munduko edozein txokotako defendatzaile edo aktibistak lotzen dituen beste elementu bat mundu matxista heteropatriarkalari aurre egin beharra da.

*“Zailegia da emakumea izanda defendatzailea izatea, herrixketan matxismoak oso indar handia baitauka; gogorregia da erresistentzietako gizonekin hizketan aritu behar duen hori izateagatik kritika jasotzea”.*

*“Giza eskubideen defendatzailea eta emakumezkoa izateak, lurralde hauetan, etengabeko gerra batean egotea esan nahi du, besteek zu entzuteko, errespetatzeko eta zu libre izateko eskubideak ukatzen baitzizkigute”.*

*“Emakume defendatzaileek indarkeria sexual, psikologiko eta fisikoa jasaten dute”.*



*“Espazio mistoetan egotea, askotan, zaila egin zait, eta emakumeen espazioak bilatu ditut, hitz egiteko. Emakumezko laborariak izateak gurutzatu egiten gaitu, hain da matxista sektorea...”.*

*Hori are nabarmenagoa da Iparralde Globalean Hegoalde Globaleko emakume bat izanda: “emakume errefuxiatuek aukera txikiagoa dute beren ekintzazailtza indartzeko eta eguneroko gastuei aurre egiteko finantzaketa lortzeko”.*

Antolakunde misto batek hau adierazi digu:

*“Lurraldea defendatzeko lan egiten dugu, antolakundearen barrenean ere konplexua da, matxismoa dela eta, emakumeek bidea zabaldu behar dugulako. Maskulinitateen gaia landu dugu eta prozesuak egin ditugu emakumezko kideoi entzun diezaguten, batez ere landako komunitateetan. Latinoamerikan oso gai gogorra da, helduok garenok bizi izan dugu, duela 25 urte baino gehiago hasi ginen. Orain eten bat egin behar izan dugu, konkista handiak lortu ditugu, kostata, gainera, emakumeok antolakundearen barruan zenbait gauza gainditu ditugu, baina falta da oraindik”.*

*“Gure espazioetan ere matxismoa ikusten ari gara, oso kide onak dira, konprometitua, baina zama matxistak latzak dira eta norberak bereak lantzeko erresistentzia handia dago. Haientzat, beren bikotekideek parte hartzea bera gizon eraldatua izatea da. Baina, noski, etxera itzuli eta emakumeek egiten dute lan erreproduktiboa, hazkuntza, eta, haiek, aldi, borroka bakarrik.*

*Gainera, beste utopia txiki horretatik ere, gure antolakundearen barne-dinamikak aldatu beharra Mexikoko antolakunde askotan ikusten dut (indigenak eta ez-indigenak), protagonismoa gizonena baita, funtsean, eta hori oso lotuta dago boterea erabiltzeko eta erabakiak hartzeko moduekin. Utopien barrenean ere garrantzitsuak dira gure antolakundearen barne-eraldaketak, egoera hau ez baita lagunargia, eta antolakundearen azpiak jaten baititu”.*<sup>17</sup>

Gero eta gehiago aitortzen da aldaketak erdiesteko norberagandik hasi beharra dagoela, etxetik, barne-prozesuetan lan eginez, indarkeriak, arrazakeria, estigmatik, lgtbiq+fobiak eta abar prebenitu ahal izateko. Gizartearen emaitza gara, eta aktibista defendatzaile hutsak izateagatik ez gara, izatez, zentzu eta praktika guztietan koherenteak.

Garrantzi handia izango du egiturazko utopien, utopia historiko eta globalen alde lan egitea, baita, ordea, gure antolakundearen bitarteko utopien alde aritzeak ere. Askotariko emakumeok ongizaterako espazio seguruak behar ditugu helmuga kolektiboak eraikitzeko.

### Nondik datoz utopia horiek eta nola txirikordatzen dira?

Eraikitzen ari garen utopien jatorriaz aktibista defendatzaileekin hausnartzean, galdera batzuk bota ditu kide batek: *“nondik sortu ziren, hasiera batean, nire ametsetako nortasunak eta utopiak? Nondik datoz, norengandik, baztertzuk dira neureak eta zeintzuk dira beste batzuen ametsak, zeintzuk datoz beste batzuen ametsetatik? Bakarrik ez sentitzeko hartu ote nituen?”.*

Batzuetan, besteen beharra daukagu jaikitzeko eta ahal dugula sentitzeko; sarritan, egunerokoan lagunargia zaigu horretaz hitz egin ahal izatea eta beste batzuekin beste errealitate batzuk amestea. Hori guztia politikoa da, helmugaren eraikuntza kolektiboa delako, eta ez pertsona bakarrarena. Norenak dira bilatzen ditudan utopiak: bihotzarenak, gogoarenak, gorputzarenak? Hau esan digute aktibista defendatzaileek:

*“12 urte nituela sartu nintzen nire herriko gazte-antolakundearen. Beti ibili naiz nire lurraldeko mugimendu independentistan eta, antolakunde horrez gain, errepresioaren kontrako mugimenduan, batez ere. Bizi osoan ibiliko naiz, nik uste, nire bizitzaren parte da”.*

<sup>17</sup> Online elkartrukea

*“Ni ere oso txikitatik hasi nintzen, nire gurasoak eta amonak ere borrokan zebiltzan. Hirikoagoa naiz, lurraldearen eta ama lurrairen kontzientzia sakonago hori kideei esker hartu nuen, haiei esker konturatu nintzen, haiei esker ulertu nuen egituren menpean gaudela”.*

*“Oso gazterik hasi nintzen antolatzen, 12 urterekin, herriko gaztetxean. Normala zen gure herriko gaztetxean parte hartzea, eta han garatu nuen pentsamendu kritiko eta politikoa, han ohitu nintzen injustiziei erantzuten”.*

*“Lurra defendatzeko erresistentziaren barruan jaio nintzen ni, odolean daramat”.*

*“Ikasle-mugimenduetan hasi nintzen, Gerrari Ez mugimenduari lotuta, pentsamendu anarkistetatik eta borroka sozialetatik hurbil”.*

*“2011ko 15M mugimenduan jarduteko prest zeuden hainbeste pertsona ikusteak eta horren parte sentitzeak motibatu ninduen... Justizia sozialetik abiatuta gauza asko aldatzeko gogoa neukan, eta badaukat oraindik”.<sup>18</sup>*

Horra hor solaskide izan genituenen aktibismoen jatorrien adibide batzuk, ez baikenuke nahikoa orri edukiko guzti-guztien abiapuntuak deskribatzeko.

**Nortzuk dira?** Emakumeak, defendatzaileak, aktibistak, indigenak, afrikar jatorrikoak, borroka kolektibo eta lurraldeko borroka luzeetan ibiltzetik datozenak, bizitza ehuntzen aritu direnak. Asko oso umetatik edo gaztetatik hasi ziren, testuinguruak eta kolektibotasunak behartuta:

*“Lurra defendatzeko erresistentziaren barruan jaio nintzen, odolean daramat nire herriaren mina, eta bihotzean dolua”.*

*“Txikia nintzen ni, eta herrian antolatu egin ginen, batere indarkeriarik gabeko lurraldeak izatea amesten genuen”.*

*“Jazarri egin bazaizkizu, atxilotu egin bazaituzte, zerbait apurtzen zaizu, ezberdina da zu izorratuta zaudenean borroka egitea. Gero, haurrak dituzunean, zerbait aldatzen da”.*

Askok ez dute aukerarik ere izan, bizitzak eraman ditu “guztientzako bizi hobe baten alde borrokatzera”. Aktibista defendatzaileek aurre egin behar dieten egoerak, batez ere Abya Yalan eta Afrikan, josita daude prozesu kolonialetan historian zehar garatu diren eta txikitatik antolatzaera bultzatu dituzten ezberdinkeriaz, indarkeriaz eta askotariko zapalkuntzaz. Batzuk nagusiagotan hasi ziren arren, guztiak urte asko daramatzate bizitza aktibatzen, utopia kolektiboak eraikitzeko haziak ereiten.

Beste batzuek, ordea, onartzen dute beste baldintza batzuetan bizi diren arren utopiak elkarrengandik hurbil daudela, oso lurralde ezberdinetan bizi badira ere,

*“Nire lurraldearen egoera pribilegiatuenetakoa da, alderdi askotatik eta era askotan indarkeria anitz jasaten badugu ere (Euskal Herria). Herri honetan, bizitza defendatzen duen emakume bat izateak esan nahi du etengabe erakutsi behar duzula kontua ez dela idealista izatea, baizik eta defendatu beharreko zerbait daukagula; jaiotzeko eta hiltzeko era ezberdinak daudela defendatzea da”.*

## Nola indartzen dira utopiak mugimendu sozialetan?

Geure burua pentsatzeko eta antolatzeko kideen hariari helduz, askotan konexioak ditugu beste utopia batzuekin, geure helmugek edo geure lurraldeenek mugitzen gaituzten arren; eta beste borroka, helmuga, desira eta mugimendu elikagarri batzuekin konektatzen dugu. Aktibista defendatzaileek hau partekatu dute gurekin:

<sup>18</sup> Inkestak

Afrikan, “nire lanerako funtsezkoak dira ikusmolde agroekologikoak, ingurumenekoak, feministak, transbertsalak, antirrazistak eta deskolonizatzaileak, justizian, jasangarritasunean eta ongizate kolektiboan oinarritutako esparruak eskaintzen baitituzte. Ikusmolde horiek botere- eta –lurrean, pertsonen zein ezagutzaren – esplotazio-sistema zapaltzailei desafio egiten diete, eta zaintza, elkarrekikotasuna eta elkarrekiko errespetua sustatzen dute. Ingurumena zein haren beharra duten komunitateak errespetatzen dituzten jardunbide jasangarriekin daukadan konpromisoa indartu dute. Ikusmolde feministek eta interseksionalek gogora ekartzen didate sarri baztertuta gelditzen diren ahotsei erreparatu behar diedala, bereziki emakumeenei, koloreko pertsonenei eta arrazaren, klasearen eta generoaren interseksioan bizi dirennei. Esparru horiek irakatsi zidaten liberazioak kolektiboa behar duela eta jardun medikoan errotuta egon behar duela, eta, hortaz, nire lanean gidari ditut, espazio inklusiboak sortzeko”.

Euskal Herritik, honako hau: “gure baratzea nola landu, eraso sexistei eta arrazistei aurre nola egin, migratzaileei harrera nola egin, genero-rolak nola landu, komunitatean diskurtso antirrazista nola landu, klase-gatazkak nola ikusarazi... Horretarako guztirako funtsezkoa da zapalkuntza-mota guztiei buruz ezagutza lortzea, eztabaidatzea eta kontzientzia sortzea”. “Guztiori artean ehundu egin dezakegula ulertzea. Konplexutasuna eta aliantzak. Esan ohi genuen agroekologia, ondo jatea, baratzea eta lokatza feminismoetara eraman nahi genituela, oso hiritarrak baitziren, eta, gainera, feminismoak baserriar mundura eraman nahi ditugu”.

Eta hau Erdialdeko Amerikatik: “indigena naizenez, maia herrien autodeterminazioak barrena mugitzen dit, baina utopia agroekologikoei eta laborarienei ere bai, nirekin bat egiten dute eta herri indigenen helmugekin batera txirikordatzen dira”.

*“Agroekologiak indartu egiten gaitu, eta lagundu egiten digu izakia eta lurra konektatzen, lotura sakratu hori egiten. Elikadura-subiranotasuna, lurrean zaintza, bertako hazia, milpa, ilargiaren zikloa eta artoa landatzea ere erresistentzia-moduak dira”.*<sup>19</sup>

Amaitzean, ikusi dugu utopiak elkarrekin txirikordatzen direla, elkar elikatzen dutela, eta aliantzak eta sareak ehundu behar ditugula nahi dugun bizitza sostengatzeko eta eraikitzeko. Talde eta lurralde bakoitzak bere testuinguruan kokatutako utopiak ditu, baina, hala ere, elementu komunak dauzka: lurra eta lurraldea defendatzekoak, elikadura-subiranotasunerakoak, jatorrizko herrien, emakumeen eta genero- eta sexu-disidenteen eskubideak defendatzekoak.

## Zer egin utopia kolektiboak suntsitzean?

Horrez gain, parte hartu duten hainbat aktibista defendatzaileen bizitza arriskuan dago beren lurraldeetan, komunitateetan eta tokiko antolakundeetan lurraldea defendatzeko eta aldaketa substantzialak lortzeko lan egiteagatik, eta batzuk tokialdatu edo erbestera egin behar izan dira, bizia salbatzeko. Botere-eragileek beren interes ekonomikoak arriskuan ikusten dituztenean, antolakundeetako kideen bizitza mehatxatzen dute, kalteak eginez eta haien familietan eraginez.

Hainbesteko presioa, arriskuak eta kriminalizazio-prozesuak direla eta, aktibista defendatzaileen bizitzak gain, haien familiena ere arriskuan egoten da, eta gero eta zuzenagoak dira haien eta beren antolakundeen kontrako mehatxuak. Gogoz kontra bada ere, aktibista defendatzaileek beren komunitateak, antolakundeak eta borrokak uzten dituzte, horrek dakarkien min eta atsekabe eta guzti, baita, batzuetan, beren familiak ere, haien biaki salbatu nahian. Egoera horietan, utopia kolektiboak suntsitu egiten zaizkie, lurraldetik ihes egiten dutelako eta taldean eraikitzeari uzten diotelako. Isolamendua edo urruntasuna ekartzen die; berriz hasi behar izaten dute, edo beraien bizitza lehenetsi, eta horrek errua sortzen die, baita bizi-proiektuaren galera, deserrotzea, dolua eta abar ere.

*“Alderdi pertsonalean, orainxe bertan komunitatean ez egoteak izorratuta nauka, komunitatean ere ez zen erraza. Orain nora jo ikusten ari naiz. Kontrainsurjentziak eta delinkuentzia antolatua mugimendua*

<sup>19</sup> Inkestak

*birrindu du, egoera oso latza da orain. Nire utopiak mantentzen ditut, hor jarraitu beharra dago, baina batzuetan oso zaila da, bizi eta ikusi ditudanak direla eta; borrokan zeuden kideak dagoeneko ez daudelako edo, are okerrago, narkoarekin bat egin zutelako. Sistema horiek beste kolektibo batzuk ere behartzen dituzte, batez ere guk izan genituen bezain oinarri sendoak dituztenak. Oraintxe, utopia handiek hor jarraitu dute, eta txikiena, pertsonalena, ni neu berreraikitzea da. Nire utopietako bat da hobeto egotea eta indarra hartzea, orain kide feministek, kolektiboek eta unibertsitateko gazteriek indartzen naute, irakaskuntzak mantentzen nau, ikasleek bizi-bizi naukate, laguntzen ari zaizkit momentu latz honetan. Lurraldearen defentsa da garrantzitsuena, noski, baina orain nire utopia txikitxoia ondo egotea da, jarraitu ahal izateko. Neure burua zalanztan jartzten nuen, dagoeneko parte ez hartzeagatik eta hainbeste ez egiteagatik, baina konturatu nintzen jarraitu ahal izateko nik ondo egon beharra dudala”<sup>20</sup>*

Egoera berberagatik asiloa eskatu beha izan duten kideen zenbait kasu ezagutzen ditugu Euskal Herrian; haien utopiak, bizitzak eta familiak egun batetik bestera aldatzen dira. Une honetan, utopiak behera datozkiela sentitzen dute; eta gorputzek, gehiago ezin dutela. Berreskuratzeko denbora behar dute, baina leku gutxi dago mina eta tristura sentitzeko, ez baitira “bizitza politiko”aren partetzat hartzen. Eta, horrela, askotariko emakumeek gurutzatzen dituzten minak gorabehera sostengatzen dituzte utopiak eta ametsak. Defendatzaileei kosta egiten zaie zaugarritasun-uneei lekua uztea, bereziki haien haurrak aurrean badaude, bizitza beraiek sostengatu dutelako, baina gizakiak dira, eta bizitzak haiei ere min ematen die.

Zaugarritasun-momentuak badituzte beraien, defendatzaileak errudun sentitzen dira utopia handi edo kolektiboan alde borroka egin zuten erritmoan jarraitu ezin dutelako, arreta beraiek ondo egoteko utopia txikitxoak berreskuratzean jarri behar dutelako. Beren burua zaintzea eta beraien ongizatean pentsatzea dagokienean, errua etenik gabe agertzen da aktibisten artean.

*“Elkarrekin zaugarri sentitzeko eta gure sentipenak partekatzeke espazioak oso baliotsuak dira guretzat, badakigulako elkarrekin zaugarriak izan gaitzekeela eta utopiak eraikitzeke bidearen parte dela hori ere. Espazio horretan, prozesu berdina edo antzekoak bizi dituztenei esker, posible da oihartzuna izatea eta gorpuztuta sentitzea. Denok elkarri esaten diogun moduan, ondo dago geure buruak berreraikitzeke eta ondo egoteko denbora hartzea. Ez dira utopia txikiak, gure bizitzak geurek dira, eta berreraikitzea merezi dugu, behar dugu, azalberitze bat balitz bezala, denbora behar du eta min ematen du.*

*Landareak bezala, aldaxka bat hartu eta beste lurralde batean landatzen dugunean; denbora behar du moldatzeko eta bere bizitza sostengatzeko, baina denboraren eta zaintzaren poderioz, biziberritu egiten da, eta bizi-bizi hazten da. Gu, gizakiok, gure sarean, arbasoan eta gure bizi-energiaren laguntzaz, bizi garen lurraldean biziberritu gaitzeke. Lagundu diezaguten utzi behar dugu, ordea, eta laguntza eskatu; denbora, pazientzia, afektuak eta abar behar ditugu.*

*Eraiki nahi ditugun utopiak bortxatu egin dituzte, sistemari desafio egiten diotelako, eta suntsitu egin nahi dituzte; aldiz, inperioaren sistemaren iruditegiekin jarraitzen badugu, erabilgarriak izango gaitzaizkie”.*



<sup>20</sup> Online elkartrukea

Utopia guztiak politikoak dira, maila ezberdinetan, aldaketa garrantzitsu bati ekarpena egiten diotelako. Gure bizitza eta gure egunerokoa berreraikitzea garamatzatenak biziki garrantzitsuak dira bizitzaren aldaketak ehuntzeko.

*“Ni ez naiz neure egoera berreraikitzea pentsatzen ari ere, benetan hunkitzen nau, ez dut osatze-prozesurik hastea ere pentsatu. Oso zaila izan da, giltzapetuta nago, ez dut nahi alabek ikus nazaten, dena ondo dagoela ikustea nahi dut. Gure egoeran oso zaila da, eta badakit gaudituko dugula, erraza ez den arren; asko daukagu gaudituzko; nire elkartzun eta maitasun guztia egoera berdinean gaudenontzat”<sup>21</sup>*

Elkarrizketa eta inkestetan, aktibista defendatzaile guztiak onartzen dute nola edo hala horrek guztiak haiengan izan duen inpaktu sozioemozionala eta gorputzetan, haien osasunean eta aktibista edo defendatzaile izatean edukitako harremanetan izandakoa. Are gehiago, batzuek inpaktu espirituala eta bizitzarekiko kontaktuan izandakoa ere aipatzen dute. Komunitate eta lurraldeetan batzuetan utopia kolektiboak emakumeen beraien bizkar lehenesten dira, gure beharrak bigarren edo hirugarren mailan utzita. Emakumeon existentziak utopiarik kolektiboenetan duen lekua birpentsatu beharko da. Utopiarik eta pertsonen ongizaterik gabe, zer utopia kolektibo mota eraikitzen ari gara?

## UTOPIEN HIERARKIZAZIOA. ZAINZA ETA ZAINZA KOLEKTIBOA.

Aktibista defendatzaileek atera zuten ondorioetako bat da utopiak utopiek beraiek hierarkizatzen dituztela, baita inguratzen dituen gizarteak ere. Zaintza eta zaintza kolektiboa, esaterako, garrantzi txikiagoko bigarren mailako desiratzat jotzen dira.

*“Hierarkizatu eta lehenetsi egiten dugu, denetarik egiten saiatzen gara, baina zaila da. Emakumeok gure antolakundeetan eta familietan dauden matxismo-erak desagerrarazi behar ditugu, baina sistema kapitalistarekin ere adi egon behar dugu, beste gauza askoren artean. Hortik dator neke fisiko eta emozionala, gaixotu egiten gara eta ezin dugu arreta denean jarrita utopiak eraikitzen jarraitu. Emakumeok funtsezko zeregina dugu lurraldeetan, ikusgai jarri ez bada ere. Emakumeekin batera pentsatzen ditugu geure buruak, guk geuk nozitzen baititugu matxismoaren eraginak, eta, gainera, matxismoa geure barnean ere badela ikusten dugu”.*

*“Bizirik iraun beharrak ez du autozaintzarako aukerarik ematen. Sarri askotan, kideek seme-alabak mantentzeko rola hartzen dituzte, eta hori izaten da lehenasuna”.*

“Autozaintza tabua da. Geure buruei ez diegu uzten, eta ez nuke esango oro har ondo ikusita dagoenik. Apurka-apurka ari da mintzagai bihurtzen. Baina zure esku daude baratzea, familia, mantenua, aita zaintzea, edo ama, baserria utzi zizun osaba... Zaintza gorantz, zaintza beherantz, eta zure barazkiak jaten dituen komunitatea, proiektu agroekologikoa, kolektiboen zaintza eta abar. Ezin gelditu. Eta zu? Aktibismo-inguruneetan zaintza errazagoa da, baina kooperatibetan askotan sistema eta erritmo kapitalistak errepikatzen ditugu”<sup>22</sup>

Hala eta guztiz ere, mugimendu eta aktibismo gehienetan zaintza oraindik lehenesten ez bada ere, zaintzak sostengatu du gizateriaren bizitza. Adibidez,



21 Online elkartrukea

22 Online elkartrukea eta inkestak.



herri osoek ama lurrari emandako zaintzari esker dauzkagu egun Lurrean biodibertsitatea eta birika bakan batzuk.

Azken hamarkada honetan, emakumeen, feministen, emakume indigenen eta LGTBQ+ komunitateko mugimenduek, indarkeriek eta zapalkuntzek gorputzetan, bizitzetan, aktibismoetan eta mugimenduetan duten eraginaz jakitun, gorputz pertsonal eta kolektiboak lehen lurraldetzat jo eta haien zaintza berreskuratzearen alde egin dute. Hortaz, aktibista defendatzaileen bizitza lehenesten da, nahi dugun bizitzaren aldeko apustua egiten baita: orain eta hemen sentitu, gozatu eta espermentatu dezakegun bizitza bat; izateko, egoteko eta existitzeko eskubidea; eta, gainera, aitortzen da besteen zaintzak sostengatu gaituela gu. Maila anitzeko utopiak bizi daitezten nahi dugu, eguneroko eta harremanak maila orotan gurutza ditzaten.

Gaur egun, orotariko antolakundeak eta pertsonak daude, askotariko ekarpenak egiten dituztenak eta utopia ezagun hori orotariko modutan eraikitzen dutenak: ongizatea, bizitza osoa edo ondo bizitzea; eta horretarako hainbat tresna eta estrategia erabiltzen dituzte, esaterako, buruko osasuna, lanketa psikosoziala, lan emozionala, autozaintza eta zaintza kolektiboa, osatzea, justizia sendagarria edo zaintza, eta lurraldeetan sortzen diren beste termino ugari.

Online topaketetako batean<sup>23</sup> aktibista defendatzaileek autozaintzaren, zaintza kolektiboaren, osatzearen eta zaintzaren gainean dituzten ulerkerak, sentipenak, atsekabeak, eraikuntzak, zalantzak eta erronkak esploratzeko aukera izan genuen. Han sortutako hausnarketetako batzuk partekatu ditugu jarraian:

### Autozaintza

- Autozaintza zaintzaren merkantilizazioaren kontrako ekintza urratzaile bat da, sentitzen dugunarekin konektatzen duen erabakia eta erantzukidetasuna.
- Autozaintza geure gorputzetik abiatzen da; geure lehen lurraldea da eta zaindu beharra daukagu.
- Autozaintza ez da berekoa izatea, baizik eta ongizatea edukitzeko eta zaintzeko konpromisoa.
- Min ematen digun guztiari, eragiten digunari, behartzen gaituenari edo zapaltzen gaituenari mugak jartzea da.
- Familiarentzako espazioa izatea da, eta osasun fisikoa, elikadura eta gorputza zaintzeko, kolektiboaren zerbitzura egoteaz eta lan egiteaz gain.<sup>24</sup>

Aktibista defendatzaileentzat, autozaintza prozesu politiko bat da, geure bizitzen arduradun egitea, geu ondo egonik, geure bizitzaren gidari izanda zaintzatik beste prozesu batzuk erraztu eta horietan bidelagun izan ahalko baitugu.

“Autozaintza militantzia duinak eraikitzeko erari buruzko hausnarketa politiko bat da, utopia eguneroko gauzetan eta jardunean eraikitzeko. Haren oinarria on egiten diguna, gustuko duguna edo gure mugak eta minak zer diren ebaluatzeko eta onartzeko ariketa da. Borrokan defendatzen ditugun eskubideak erabiltzeko ariketaren parte da, bizi nahi dugun munduaren eraikuntza instantzia jakinetara eramatekoa.”<sup>25</sup>

Silvia Federicik hau dio: *“politikak ez du lan alienatu bat izan behar, baizik eta indarra, ulerkortasuna eta besteekiko harreman hobeak ematen dituen zerbait. Borroka ez dugu betebeharr moduan egin behar. Militantzia zioriontsuari buruz idatzi dut zerbait. Uste dut ez dela sakrifikatu behar. Gure ongizatearekin*

<sup>23</sup> Online elkartrukea: aktibista defendatzaileen webinaria; Inpaktua eta estrategiak. autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?

<sup>24</sup> Online elkartrukea: aktibista defendatzaileen webinaria; Inpaktua eta estrategiak. autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?

<sup>25</sup> Sarcuna Eskola Feminista.

*zerikusia duten gauzak egin behar dira. Borroka gure kontra badator, zerbait ez dago ondo. Oso garrantzitsua da gorputz eta bihotz indartsuz borrokatzea, eta ez ahul ditugunean; ongi elikatu behar dugu, maila guztietan. Bakoitzak bere gaitasun berezi eta espezifikoa ditu; non egon nahi dugun eta nola lagundu nahi dugun ikusi beharra dago.*<sup>26</sup>

Aktibista defendatzaileek beraiek aipatu dute autozaintzak, zaintza kolektiboak eta osatzeak ez dutela ordenarik, elkarrekin lotuta daudela, eta estrategia bakoitza garrantzitsua dela nahi ditugun utopia kolektibo eta pertsonalak lortzeko.

## Zaintza kolektiboa

*“Zaintza, praktika kolektibo feminista bat denez, aukera ematen digu kapitalismoak ezartzen digun indibidualizazioa lehertzeko, esperientziak kolektibizatuz, gorputza despribatizatuz eta testuinguru historiko, politiko eta ekonomikoek mundua bizi dugun erari eragiten dioten eta gure ongizatean eragiten duten moduei buruz hausnartu.”*<sup>27</sup>

Mugimenduetan, bereziki emakumeenetan, gero eta gehiago mahaigaineratzen ari dira zaintza kolektiboak taldeetan, antolakundeetan eta komunitateetan duen garrantzia. Aktibista defendatzaile askok oraintxe ulertzeraz iristen ari direla eta praktikara, aldiz, oraindik iritsi ez dela aipatu duten arren, gero eta ekintza gehiago egiten ari dira estrategia hori indartzeko.

- Zaintza kolektiboa erantzukizun kolektiboa da, batera gaudenean indartsuagoak garelako.
- Inportantea da batera ekitearen erantzukizun kolektiboaz hitz egitea eta hartaz baliatzea, baita, ordea, gurekiko eta besteekiko arduratsua izateko atsedean hartzen eta geure burua zaintzen jakitea.
- Garrantzitsua da ongizate-politikak sortzea. Atsedenek gabe ahuldu egiten gara, energia dagoeneko baxuenean ditugulako.
- Osatzeko zaintza holistikoa behar dugu etorkizuna eraiki ahal izateko, eta bertan esperantzaren, ongizatearen, pozen eta bizitza onaren memoriak izateko.
- Zaintza kolektiboan elkarrekin osatzen gara, bizi-arnasa berreskuratzen dugu.
- Gure genealogietako jakintza berreskuratzen eta gordetzen dugu, zaintzarako eta zaintza kolektiborako.<sup>28</sup>

## Osatzea

Kolektibo batzuentzat, osatzeko estrategia lanerako funtsezkoa da, indarkeria eta zapalkuntza historikoek gorputzetan eta familietako zein komunitateko harremanetan duten inpaktua aitortzen baita. Estrategiok ez dira norbanakoentzat soilik, baizik eta kolektiboentzat, belaunaldien artekoak, gizaldiz gizaldi transmititzen baitira.

- Osatze-prozesuetan, garrantzi handia izan du herri indigenen irakaskuntzak berreskuratzeak. Zetorrenari eutsi zioten eta oinazetik suspertu ziren arbasoetatik gatoz.
- Osatze pertsonalak, familiakoak, kolektiboak eta komunitatekoak garrantzi handia du.
- Osatzeak espiritualtasunarekin konektatzea ahalbidetzen digu, gaitasuna ematen digu bizitzaren sarearen parte garelako konturatzeko, eta gure jatorria indibidualtasunetik harago dagoela. Hortik abiatuta, erritualtasuna berreskuratzen dugu.

26 Federici, Silvia (2018).

27 Sarcuna Eskola Feminista.

28 Online elkartrukea: aktibista defendatzaileen webinarrak; Inpaktua eta estrategiak. autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?

- Agerian dago osatzeko oso inportantea dela askotariko testuinguruetakoa traumen ondorioetan sakontzea. Traumei buruz ditugun ulerkerak sakondu beharko dira, trauma indibidualaz gain kolektiboak eta belaunaldi artekoak ikusteko, horiek geure buruarengandik, besteengandik eta bizitzaren saretik deskonektatuta baikauzkate.<sup>29</sup>

Gerraren, genozidioen, egiturazko indarkerien, arrazismoaren, arpilatzearen eta bipiltzearen traumen inpaktuek uzten dituzten epe luzeko lorratz sakonek zaintza kolektiboa eta autozaintza mugatzen dituzte.

- Estresak, akidurak eta traumak pertsonengan eta komunitateetan duen inpaktu sakona onartzen dugu, bereziki aktibismoan eta justizia sozialaren aldeko lanean dihardutenengan utzitakoa.
- Ongizatearen gure ikusmoldearen oinarria komunitateko laguntzarako, erresilientzia emozionalerako, ongizate psikosozialerako eta zaintza kolektiborako sistemen bidez arreta eta osatzea lehenesten duten eredu bat da.
- Gure metodologiaren funtsa, aldiz, berdinen arteko laguntza, hausnarketarako espazioak eta osatze holistikorako jardunbideak dira, besteak beste; arreta osoa, istorioak kontatzea eta adierazpen sortzailea. Ongizaterako Baliabideen Zentroa plataforma bat da, parte izatea eta osatze partekatua sustatzeko, eta benetako berroneratzea komunitateetan gertatzen den sinesmenean oinarritzen da.<sup>30</sup>
- Trauma kolektibo eta banakakoan eraginpean oso zaila da plazerarekin konektatzea. Gure zelulak, gure nerbio-sistema ohituago daude erne egotera eta arriskuei erantzutera disfrutatzearekin, gozamenarekin, plazerarekin, atsedenarekin eta abarrekin konektatzera baino. Orduan, gure nerbio-sistemak atsedean hartzen ez badaki eta hartuz gero errudun sentitzen bada, nola hartu atsedean? Zer baldintza, denbora, espazio, baliabide eta ikasketa daukagu atsedean hartzeko eta autozaintzarako?

Zaintza kolektiboko, osatzeko eta autozaintzako prozesuak sortzeko, beharrezkoak dira adieraberritzen, zauriak sendatzen, forma berriak erabiltzen lagunduko duten prozesu luzeak, apurka-apurka bizi nahi dugun bizitzaren parte izatera pasatu daitezten.

## Pribilegioen, ezberdinkeriaren eta zaintzaren arteko tentsioa

Aktibista defendatzaileek lantaldeetan, antolakundeetan eta askotariko kolektibitateetan sor daitezkeen tentsioetan jartzen dute arreta, jende guztiak ez baititu autozaintzarako eta zaintza kolektiborako baldintza, denbora, espazio eta baliabide berberak.

Zaintza kolektiboa eta zaintza tentsioan daudenean, hausnartu egin behar dugu abiapuntuko errealitateak zentzuzk diren, eta zapalkuntzak eta pribilegioak nola teilakatzen diren aztertu. Ez da gauza bera horretaz aritzea gure bizitzetan kolektibitate indibidualtasunaren aurretik lehenetsi bada, edo indibidualtasuna lehenetsi bada kolektibitatearen aurretik. Tentsio horiek agerian geldituko dira lantaldeetan, antolakuntza hezurramitzeko eretan. Autozaintzaz ari garenean, geure buruari galdetu beharko diogu: **nondik ari gara autozaintzaz, besteen aldean, gurutzatzen gaituzten ezberdinkeriak eta zapalkuntzak aintzat hartuta?**

*“Orain asko hitz egiten dugu zaintzari buruz, baina beti egon da hor, gure arbasoek bazekitelako bizitza nola sostengatu. Garrantzitsua izango da, beraz, zaintza kolektibo horren memoria biltzea eta berreskuratzea, eta zaintza neoliberal horretan ez jaustea, denbora kolektiboekin tentsioan dauden denbora pertsonalenean, alegia. Izan ere, ez da gauza bera pertsona pribilegiatu batentzat eta bere bizitza*

<sup>29</sup> Online elkartrukea: aktibista defendatzaileen webinarra; Inpaktua eta estrategiak. autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?

<sup>30</sup> Inkestak

*eta beste batzuen bere esku daudelako atsedean hartu ezin duen batentzat. Autozaintza ez da gauza berbera pertsona pribilegiatu batentzat eta ezberdinkeria askoren mende bizi den beste batentzat”<sup>31</sup>*

Adibidez, taldeetako pertsona guztiak ezin dute beraientzako denbora hartu beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratu behar dutenean. Nola eragiten du arrazismoak, zisheteropatriarkatuak, haurrak edukitzeak edo ez edukitzeak?

Gainera, hutsetik abiatzen ari ez ginela azpimarratu zen, komunitateek zaintzari esker iraun dutela:

*“Garrantzitsua da komunitateen eta herrien zaintzarako eta zaintza kolektiborako estrategiak ezagutzea eta biltzea. Era askotara biktimak izan garen arren, apurtuta sentitu gara. Hala ere, ezereen gainetik, bizitzan gaudela onartzen dugu, ez gara biktimak bakarrik izan, geure herrien eta familien zaintza kolektiboa sostengatu dugu, bizitza sostengatu dugu, eta horrexegatik gaude gaur hemen”.*

Herri guztiak dituzte beren mundu-ikuskeraren arabera zaintza kolektiborako eta autozaintzarako moduak, eta berreskuratu egin behar ditugu.

### Aktibismo jasangarriak

Ondo egonda bizitza aktibatzea eragingo diguten *“aktibismo jasangarri eta militantzia alai”* buruzko narratibak sortuz joan dira. Horrek erronkak dakartza, noski, zein testuinguruz ari garen. Ezein ekarpeni baliorik kentzeko asmorik gabe, borrorak eta aktibismoak ezin dira berdin, agerikoa baita aktibisten eta defendatzaileen zapalkuntzak, ezberdinkeriak eta pribilegioak teilkatuta daudela. Hortaz, ezberdinak dira norbera zaintzeko, osatzeko eta zaintza kolektiborako dauzkagun espazioak eta baldintzak.

Hala eta guztiz ere, Abya Yalan eta Afrikan aurrera egiten ari dira aktibismoen eta militantzien hausnarketan.

- Eraiki nahi dugun bizitzarako aldaketen parte da presari kentzen diogun denbora oro, bai eta sentitzen utzi gabe gauzak egite hutsaren logika kapitalistari jarraitzen dioten aktibismoei kendutakoa ere.
- Indarkeriek eta zapalkuntzek gure gorputzetan eta harremanetan dituzten inpaktuen jakitun ez garenez, aktibismo nekezak eta akigarriak sortzen ditugu. Askotan, defendatzailea edo aktibista izateak sinetsarazi digu ez dugula daukagun mina eta paimena erakutsi behar. Garrantzi handia dauka, ordea, sakrifiziozko aktibismoen inpaktu sarri ikusezinak aitortzeak; adibidez, estresa, desesperantza, frustrazioa, depresioa, ebatzi gabeko doluak, indarkeriak eta mugimenduetako bertako ezberdinkeriak.

Emakume aktibista defendatzaileak erruarekin batera bizi dira urte osoko asteko egun guztien 24 orduetan gauzak konpontzeko eze badaude. Nahikoak ez direla sentitzen dute, eta horrek beren bizitza-kalitatea hondatzen du, eremu guztietan.

Latinoamerikan defendatzailearen ezaugarriak zeintzuk diren galdetzean, IM-Defensorasen arabera, honako hauek aipatzen dituzte lehenbizi: *“eskuragarri egotea, zorrotza izatea, oraina borrokan egotea eta sakrifizioa baita”*. Defendatzaileen zein askotariko eremuetan haien inguruan daudenen sinismen kolektibo horiek aktibismo eta militantzia sakrifiziozkoak eta akigarriak sustatzen dituzte, besteen zerbitzurakoak soilik, eta, ondorioz, beren burua eta beren ongizatea zaintzeari uzten diote. *“Lanaren gainkarga da jasangarritasunaren paradoxa ugarietako lehena. Aktibistek egin behar duten lan-kantitateak kezka eta estres handia sortzen dien arren, ia denek onartzen dute halako lan-maila izugarria aktibismoaren ezinbesteko osagai bat dela”<sup>32</sup>*

31 Online elkartrukea: aktibista defendatzaileen webinaria; Inpaktua eta estrategiak. autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?

32 Barry eta Jorjevic, 2007

- Sakrifiziozko aktibismoek geure burutik aldentzen gaituzte, gu geu osorik ikusteari uzten diogu, borrokara eta eskubideen defentsara murrizten dugu geure burua, gugandik espero denari buruzko eskari eta esperantzak gainean ezartzen dizkigun bitartean. Aktibismo historiko sakrifikatzaile horiei denbora kenduko dieten eta bizitza bizitzeko denbora hartuko duten aktibista defendatzaileen kolektibitate bat sortu behar da, beren osasuna, afektuak eta ongizatea zainduko dituztenena.

## Zaintza

Halaber, ekonomia feministatik duela zenbait hamarkada arreta zaintzaren narratiba emantzipatzailean jarri nahi izan da, bizitzaren forma guztiak sostengatzen laguntzen baitigute.

Celibertiren (2023) arabera, *“ikusmolde feministak zaintzak dakartzan aukerak esploratu nahi ditu, komunitateko sareak eta ekintza kolektiboak indartzeko, alderdi soziala pribatizatzeari, patriarkatuak zaintza emakumeari esleitzeari eta bizitza sostengatzeko oinarri materialen ekodependenziaren aitortzarik ezari aurre egite aldera. Zaintzari buruzko politika feministak oinarritzko zenbait printzipio hartu behar ditu abiapuntutzat, hala nola zaintzaren desmaternalizazioa, desfamiliarizazioa, desfeminizazioa, desheteronormalizazioa, eta zaintza birbanatzeko behar diren kultura-aldaketak aldarrikatu beharko ditu”*.

Zaintza era askotara uler daiteke, eta horretan ere sakondu dezakegu, baina hona hemen aktibista defendatzaileei zaintzak utopien eraikuntzaren parte gisa duen rolari buruz egindako zenbait hausnarketa.


- Ikusten duguna zaintzen dugu, eta ikusten ez duguna, ez; horregatik, oso garrantzitsua da behar diren eta gehiengoarentzat ikusezinak den zaintza izendatzea, esatea eta hartaz mintzatzea, askotan gorputz jakin batzuen bizkar gelditzen diren horiek, alegia.
- Zaintzari ezberdin heltzen diogu gure bizi-etaparen arabera.
- Gure eskemetatik abiatuta zaintzen eta begiratzen dugu. Esaterako, heterosexuak bagara, ez daukagu zaintzen beste disidentzia eta nortasun batzuekin darabiltzagun beste indarkeria batzuk.
- Indarkerien eta zapalkuntzen ondorioz hain kaltetuta ditugu gure gorputz-lurraldeak ezen, zaintzeaz ari garenean, nola edo hala erreparazioaz ari baikara.

Zaintza-ekintzak egunero egiten ditugu, etxean; adibidez, jana, arropa, garbiketa, landareak; baina baita entzutea, komunikazioa, afektuen elkarrekikotasuna eta egotea ere. Haurrekin, helduekin, adinekoekin, zaintza bizitzako etapa guztietan behar da, eta proposatu da, zaintza birbanatzeaz gain, hari lekua ematea.

## EKINTZAK - TRESNA KOLEKTIBOAK, PERTSONALAK, ZAINITZA KOLEKTIBOKOAK ETA BABESEKOAK

Elkarrizketa hauetan zaintza kolektiboaren formak partekatu dira, zaintza eta autozaintza eguneroko bizitzan sortzeaz gain, antolakunde eta kolektiboetan aplikatzeaz.

Euskal Herrian, adibidez, horri loturiko jardunbiderik esanguratsuena partekatzeke, elkartzeko eta solasean aritzeko topaguneak dira, harremanak indartzen laguntzen baitute: *“auzoan egiten dugun lanaren helburua ez da ekoiztea soilik, baizik eta elkarrekin bakean egotea”*; *“guztiontzako elkartzeko une bat sortzen dugu”*; *“urtean zehar hainbat bazkari izaten ditugu, elkarrekin jolasean ibiltzen gara jai-giroan, txosna bat muntatzen dugu, txangoak egiten ditugu”*; *“eztabaidarik ez dugu saihesten”*; *“zaintza kolektiboaren alde apustu egiten dugu, irteeren bitartez”*



Aktibista defendatzaileek ikusmolde integrala proposatzen dute autozaintza eta zaintza kolektiboa praktikan jartzeko.

### Kolektibitatea

- Hitz egiten dugu eta adostasunetara iristen gara.
- Elkarri gomendioak ematen dizkiogu, elkar zaintzeko.
- Antolakundeekin aliantzak sortzen ditugu, zaintzeko moduak ikusi ahal izateko.
- Osatzearen bidez, zaintza kolektiborako tresnak hobetzen saiatzen gara.
- Entzute-espazioak, bakoitzaren abiapuntuko errealitatea transmititzeko.
- Zaintza eta komunikazio ona lehenestea.
- Elkar eta geure burua zaintzeko, antzeko kolektibo sentikorrekinekin konektatzeko eta indarrak batzeko prestakuntza.
- Emakumeen espazio propioak sortzea.
- Autodefentsa integrala.
- Maien espiritualitatea berreskuratzea eta defendatzea. Zeremoniak egiten ditugu momentu zailetan edo erabaki garrantzitsuak hartu aurretik gidaritza, indarra eta argitasuna eskatzeko.
- Barne-indarkeriak izendatzea eta sendatzea. Hausnarketarako espazioak egiten ditugu, barne-harremanak eraldatzeko, eta kontseilura eta sutzarrera dei egiten dugu, orientazioa lortzeko.
- Mina indar kolektibo bihurtzen dugu; mehatxua, ekintza; isiltasuna, hitz; eta beldurra, antolakuntza.

### Zaintza kolektiboa

- Lanetik deskonektatzeko denbora guztientzat.
- Osatze-kontuei, konstelazioei, banakako arreta psikologikoari eta barneko aisiarako espazioei buruzko prestakuntza-prozesuetan era aktiboan parte hartzea.
- Elkar entzutea, elkarrekin adi egotea, zereginak banatzea.
- Zaintzak “funtsezko zeregina du, bizitza duina defendatzen dugulako, hain zuzen. Gure formak zeremoniak izan daitezke; gure sendabelarrak, estrategia prebentiboak, ehuntzea, kantatzea edo dantzatzea”.
- Ezetz esaten, negar egiten eta errurik gabe deskantsatzen ikasten ari gara.
- Zaintzaren oinordetza ez dela emakumeena edo gorputz feminizatuen soilik.
- Harremanak beste izaki bizidun batzuen sareetatik abiatuta zaintzea.
- Lana ez merkantilizatzea, lan-kooperatiba, trukea erabiltzea, komunitatea babestea, kontsumo-taldeak.

### Autozaintza

- Neure burua lantzea. hobetetzako ditudan aukerak eta nire abileziak aitortzea.
- Neure burua zaintzea, naturaren eta baratzearen prozesuak ulertzea.
- Irakurtzea.
- Gorputzaren eta emozioen autozaintza.
- Hitz kontzientea eta memoria.
- Arbasoen espiritualtasuna, argitasuna, indarra eta zentzua izateko.
- Lurraren eta bizitzaren aldeko sinesmen sakona eta maitasuna.
- Emozioen kudeaketa, egonkorrago mantentzen laguntzen didan elkarrekiko laguntza-talde batean.

Zaintzaren, zaintza kolektiboaren, autozaintzaren eta osatzearen eguneroko jarduna oraindik ere erronka bat den arren, gero eta aurrerago goaz bizitzak ongizatearekin eta bizitza osoarekin gehiago konektatuko duen munduak eraikitzeko bidean.





### III. ERANSKINAK: ZER GALDETZEN DIOGU GEURE BURUARI?

Hona hemen zer galdera gako bota genituen Herri Utopien eguneroko hau sortzeko; agian erantzun nahiko diezu, beste narratiba eta pentsamendu batzuk eraikitzeko prozesu bizi honetan murgiltzeko.

#### Utopien Herri Bira herrikoia:

- Zer arrisku bizi dituzten emakume defendatzaileek/aktibisten Iparralde eta Hegoalde Globalean?
- Zer erronka daude eta autozaintzarako eta zaintza kolektiborako zer mekanismo jarri dira abian?
- Zer utopia irudikatzen dituzte lurralde bakoitzeko emakume defendatzaile/aktibistek?

#### Aktibismoak, zaintza kolektiboa eta Lurra-Lurraldea

- Zerk jarri dizkigu mugak edo erraztasunak norberaren bizitzan zaintza kolektiboko ekintzak txertatzeko?
- Zer laguntzen digu eta zerk mugatzen gaitu gure kolektiboetan zaintza kolektiboa, autozaintza eta osatzea praktikan jartzeko?
- Zer gertatzea espero dugu zaintza kolektiboa eta osatzea gure bitzetara heltzeko?
- Zerk errazten edo zailtzen du zaintza kolektiboa eta aktibismo jasangarriak abian jartzea?

#### Ekitaldi publikoak

- Zer errealitate dago zure bizilekuan eta nola egiten diozu aurre?
- Zer tresna indibidual eta kolektibo dituzu?
- Zeintzuk izango lirateke zure utopiak?

#### Inkesta:

1. Zure kolektiboaren, antolakundearen edo mugimenduaren izena:
2. Laburtu hiru lerrotan zure antolakundeak, taldeak edo mugimenduak zer egiten duen: *Eskuliburua ezagutzea nahi baduzu, harremanetarako datuak, webgunea eta sare sozialak jar ditzakezu.*
3. Zure izena (eta zer izenordainekin sentitzen zaren identifikatuta):
4. Laburtu hiru lerrotan nor zaren (nahi duzun moduan aurkeztu) eta zer lotura duzun zure antolakundearen borrokekin edo helburuekin.
5. Zein da zure bizitokiaren egungo egoera? (testuinguru oso konplexua bada, izendatu egoera batzuk) Zer dakar defendatzailea eta emakumea izatea hizpide ditugun herrialde horietan dauden indarkeria horiekin guztiekin?
6. Zer zailtasun topatzen duzue maila kolektiboan, antolakundearen, zuen aktibismo-lana edo bizitza, lurra, lurraldea eta naturaren eskubideak defendatzeko lana egiteko? (izendatu bost, gutxienez)
7. Zer arrisku/zailtasun bizi dituzue emakume\* aktibistek/ lurraren eta lurraldearen defendatzaileek? Izendatu zure defentsan edo aktibismoan gehien topatzen dituzuen bost arrisku, gutxienez.
8. Zer egiten duzue taldean, antolakundearen, horri aurre egiteko?

9. Zer tresna/erresistentzia edo babes-neurri indibidual edo kolektibo zaizkizue lagungarriak egoera horri aurre egiteko, oinez egiteko, zuen proiektuetan funtzionatzeko, egunerokoan? a) maila indibidualen b) maila kolektiboan:
10. Badute beren burua zaintzeko, arnasteko modurik? Zer rol du zaintzak zuen aktibismo eta kolektiboetan (autozaintza/zaintza kolektiboa)?
11. Zure ustez, zer ekarpen egiten dute ikusmolde agroekologikoak, ekologikoak, feministak, interseksionalak, antirrazistak eta dekolonialak? Zer beste proposamen eta begiradak egin diote ekarpena egiten duzuen lanari?
12. Atzera begira, noiz antolatu zinen lehenbizikoz beste batzuekin batera, kolektiboan? Zerk motibatu zintuen sakonean? Zerbait aldatu edo eraiki nahi zenuen? Zein zen zure ametsa? Su horrek bizirik dirau?
13. Nondik ateratzen duzu mehatxuen, jazarpenen, indarkerien eta are hilketen aurrean ere borrokan jarraitzeko indarra? Motibatzen zaituen zerbait parteka dezakezu, indarra ematen dizun zerbait edo bizitzan gidatzen zaituen zer edo zer. Tinko heltzen laguntzen dizun zerbait.
14. Zer dira utopiak zuretzat? Horiek eraikitzen ari zaretela sentitzen duzu? Zure sentipenen arabera, utopia horiek eraikitzeko zer hazi ereiten duzu egunerokoan?

Teknika narratiboetatik eta beste iruditegi batzuetatik egin nahi dugu lan, eta ez hitzetik soilik. Esan diezagukezu zuretzat (edo zuentzat) sinbolikoa eta zuen lurraldearen bereizgarria den hegaztirik, landaririk eta zuhaitzik? Zure proiektuaren/taldearen edo antolakundearen irudi sinboliko bat bidal diezagukezu?

#### Online eta aurrez aurreko elkartrukea:

Talde hauetan, bakoitzak berea bost minutuz partekatu zuen, epairik eta mozketarik gabe, eta gero sakontzen jarraitu zen.

- Zure lanaren eta antolakuntzaren xede diren utopiak/ametsak laburtu ditzakezu?
- Utopia horien artean, zure ustez, badago bizitza/lurra/Pachamamaren sarea zaintzearen eta defendatzaileen gorpuzten eta bizitzaren zaintza kolektiboaren arteko loturarik?
- Zure ustez, utopia/amets horiek nola indartuko liriateke beste mugimendu batzuekin, nahi ditugun aldaketak lortzeko? (deskolonizazio-mugimendu eta -ikuspegiak, lurraldearen defentsa, herri indigenak, laborariak, feministak, agroekologia eta abar)
- Norekin amesten eta eraikitzen dituzu utopia horiek?

Webinarra: “Defendatzaile-aktibistak; inpaktua eta estrategiak, autozaintza, osatzea, zaintza kolektiboa, laguntza psikosoziala, buruko osasuna?”

- Gogoan daukagu defendatzaile/aktibista gisa zer inpaktu dugun?
- Zer estrategia jartzen dugu martxan? Zer esan nahi dugu autozaintzaz, osatzeaz, zaintza kolektiboaz, laguntza psikosozialaz eta buruko osasunaz ari garenean? (Zer da oihartzun handiena egiten dizuna)
- Eskubideen defentsa/aktibismoak jasangarriak izan daitezke? Zer pentsatzen dute kolektiboek eta antolakundeek zaintzari buruz?
- Zer lotura dago bizitza/lurra/Pachamamaren sarea zaintzearen eta defendatzaileen gorpuzten eta bizitzaren zaintza kolektiboaren artean?

## IV. BIBLIOGRAFIA

- Barry eta Jorjevic, 2007, Qué sentido tienen la revolución si no podemos bailar, <https://urgentactionfund.org/wp-content/uploads/2023/09/WTPR-in-Spanish1.pdf>
- Celiberti, 2023, Territorios de los cuidados para sostener la vida, Güemes eta Cos Montiel (arg.) Cuidados y ecofeminismo. Consolidar avances y construir futuros igualitarios en Latinoamérica, <https://www.fundacioncarolina.es/wp-content/uploads/2023/02/Cuidados-y-ecofeminismo.pdf>
- Federici, Silvia (2018). Diálogos entre el feminismo y la ecología desde una perspectiva centrada en la reproducción de la vida. Elkarriketa Silvia Federiciri. Eskuragarri hemen: <https://www.ecologiapolitica.info/?p=10267>
- Sarcuna, Escuela Feminista Lo Haremos Caer, módulo autocuidado y cuidado colectivo, <https://surkuna.org/wp-content/uploads/2021/03/Mo%CC%81dulo-Autocuidado-y-Cuidado-Colectivo.pdf>
- Brigadas Internacionales de Paz (PBI). 2023. El camino de la protección integral (Irene Santiago y Vicente Valliés): [https://pbi-ee.org/sites/default/files/2024-12/MODULO02\\_elcaminodelaproteccion%5B1%5D.pdf](https://pbi-ee.org/sites/default/files/2024-12/MODULO02_elcaminodelaproteccion%5B1%5D.pdf)
- SEMBRAR PARA RESISTIR Metodologías de seguridad y protección integral para personas defensoras de derechos humanos en Honduras (PBI) [https://new.peacebrigades.org/sites/default/files/2024-08/Sembrar%20para%20Resistir\\_metodologias%20de%20seguridad%20y%20proteccion%20integral\\_HOP.pdf](https://new.peacebrigades.org/sites/default/files/2024-08/Sembrar%20para%20Resistir_metodologias%20de%20seguridad%20y%20proteccion%20integral_HOP.pdf)





IDENTITATEA

BIDEA EGIN

LURRAREKIKO

EREIN

ESPAZIOAK

ZABALDU

SOSTENGATU

Zaintza kolektiboa

amestu

MAITASUNA

Batera

eraike

BAKEA ETA JUSTIZIA